

PREMIOS ELKARLAN 2019 ELKARLAN SARIAK

Aukeratutako proiektuen txostena

Dossier proyectos seleccionados



elkarrekin eraikiz
cocreando valor público

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ÍNDICE

Asociación Cultural Deportiva Goian

***GOIAN, AISIALDIAREN BITARTEZ KOMUNITATE HEZITZAILEA IZATEKO
GIDA.....página 3***

EHKOlektiboa Elkartea

EHKOLEKTIBOA, AGROEKOLOGIAREN BIDEAN.....página 31



GOIAN
Gida hezitzailea

GOIAN GIDA HEZITZAILEA – AURKIBIDEA

<i>Sarrera</i>	5
Proiektu hezitzailea dela diogunean, zertaz ari gara?	5
<i>Hezkidetza</i>	6
Elementuak edo tresnak	6
Hezkidetza lantzeko adierazleak	8
<i>Elkar zaintza eta errespetua</i>	9
Gatazka-konponketaren proposamena (KEB)	9
Zigorak	11
Elkar zaintza lantzeko adierazleak	12
<i>Parte-hartzea</i>	13
Parte-hartzeko baldintzak (Equipo Claves)	13
Parte-hartzea lantzeko adierazleak	17
<i>Euskaraz komunikatzea</i>	18
Zer egin beharko genuke euskararen erabilera sustatzeko?	18
Zer ez dugu egin behar?	18
Zer egin euskaraz hitz egiteko zailtasunak badituzte?	18
Lan tresna interesgarriak	22
Euskara lantzeko adierazleak	23
<i>Kultur aniztasuna balorean jarri</i>	24
Kultur aniztasunarekiko errespetua lantzeko adierazleak	27
<i>Auzo komunitatea</i>	28
Komunitatearekin lotura lantzeko adierazleak	30

Sarrera

Gure auzoa eguneroko bizitzaren eszenatokia da. Norberaren bizitzaren protagonista bihurtzeko espazio partekatua. Kultura, kirola, gizarte lana edota hezkuntza eremuko zenbait auzokide elkarbizitza eredu osasuntsu bat sortzeko lanean ari gara, bertan bizi direnen beharrei erreparatuz.

Hizpide dugun elkarbizitza proposamenak parte-hartze zuzena, lankidetzeta eta elkartasuna ditu oinarri. Gure jarduna, hiru eremutan antolatzen dugu: hezkuntza eremua (kultura eta kirolaren bitartez), komunitate eremua eta barne mailako antolaketa.

Gure lana aisialdiaren esparruan garatzen dugu, lehentasuna 18 urtetikbeherakoei emanez. Horretarako interesgune desberdinetatik abiatuz, auzokohaur eta gazte guztiek talde proiektu baten parte izatea ahalbidetzen dugu.

Talde proiektu hauen bidez, haur eta gazteek auzo mailako dinamiketan parte hartzen dute. Partaidetza horrek komunitatearekin lotura estutzen du eta gaitasun desberdinak eskuratzen laguntzen dio. Auzoko haur eta gazte guztiek auzoan ikasi eta gozatzeko, ekonomia eta onartze irizpide malguak ditu elkarteak, elkarlan bekak dira hau lortzeko gure baliabide nagusia.

Hauek dira gure helburuak:

1. Lehentasunezko arreta eskaini Alde Zaharrean bizi diren edo bertako ikastetxeetara doazen haur eta gazteengan. Bereziki, gizarte-egoera ahulean daudenengan.
2. Arte, kultura, ingurunea, kirola eta teknologia oinarri duten talde proiektuen bitartez hiritartasun gaitasunak garatu.
3. Komunitatea eraikitzeko espazioak eta topaguneak sortzea. Horretarako, parte-hartzearen bidez pertsonak sozializazioan lagunduko duten sare eta egitura sozialak babestu eta dinamizatu behar ditugu eta, aldi berean, egitura horiek edozein auzokidek parte hartzeko ezaugarriak izatea zaindu.

Proiektu hezitzailea dela diogunean, zertaz ari gara?

Badira zenbait urte Goianen irizpide hezitzaileak lantzen hasi ginela. Gaur egun, irizpide horiek garatu eta zehazteko momentuan gaudela uste dugu. Aurrez esan dugun bezala, gida honen helburua bai haur edo gazte taldeekin edo Goianen ematen diren egoera desberdinetan erabilgarri izatea da. Horretara goaz.

Gida hezitzailea une oro aberasten, aldatzen eta elikatzen doan dokumentua izateko sortu dugu, beraz garatzera, aldatzera, proposamenak egitera gonbidatzen zaitugu.

Honako hauek dira landu nahi ditugun irizpide hezitzaileak, irizpide bakoitzeko oinarri teorikoa, gaia lantzen ote dugun jakiteko erabili ditzakegun adierazleak eta interesgarriak iruditzen zaizkigun bibliografia edota loturak agertzen dira.

1. Hezkidetza
2. Elkar zaintza eta gatazken kudeaketa.
3. Parte hartzea.
4. Euskaraz komunikatzea.
5. Kultur aniztasunarekiko errespetua.
6. Komunitatearekin lotura.

Hezkidetza

Hezkidetzan hezteak neska eta mutilen, emakume eta gizonen arteko dominazio harremanak ez sortzean datza. Hezkidetzan hezteak ezberdintasunetik berdintasunean hezteak esan nahi du.

Bi bide erabiliko ditugu:

- neskentzako berdintasun-baldintzen aldeko ekintza positiboak burutzea;
- genero ikuspegia ekimenaren garapen osoan zeharka txertatzea.

Elementuak edo tresnak

Hizkuntza

Hizkuntza inklusiboa eta ez sexista.

Irudiak

Irudiek errepikatzen dituzten rola aintzat hartu, estereotiporik erreproduzitzen duten aztertu, neskak bigarren mailako roletan, mutilak rol aktiboan eta protagonista gisa.

Liburuak eta material didaktikoak

Ikuspegi kritikoarekin aztertu. Nortzuk dira protagonistak? Ezarritako genero rola iraunarazten dira? Ze jarrera bultzatzen dira? Protagonisten artean neska eta mutilen kopuru orekatua aintzat hartzen da?

Tokiak eta baliabideak

Baliabideak eta tokien erabilera banatzean garrantzitsua da modu orekatuan egitea. Neskek mutilek okupatzen dituzten toki berdinak erabiltzen dituzte? Material berdinak eskatzen dituzte edota gutxiagorekin konformatzen dira?

Teknologia berriak

Erabiltzen baditugu, musikan adibidez, abestiek dituzten letrak, bidaltzen duten mezua, etab. kontuan izan.

Jolasak

Jolasak genero ikuspegitik antolatu, ez dute zertan berdintasuna lantzeko berariazko jolasak izan behar. «Berdintasunaren inguruko jolasa egitearen» ideia burutik kendu eta «egiten dugunari buelta eman sexismoa ez erreproduzitzeko» ideian pentsatu.

Taldeak

Taldeetan sortzen den dinamika eta harremanak ere, hezkidetza praktika ona burutzeko aztertu beharreko elementuak dira. Taldean ematen diren interakzio hauek aintzat hartzeko alderdiak dira: nortzuk agintzen duten, gatazkak modu baketsuan baina berdintasunezko eran ere kudeatzen diren edota nesken parte hartzearen kopuru orekatua aintzat hartzen da?

Begiraleak

Kontuan izan behar da ereduaren transmisioa direla.

Hezkidetza lantzeko adierazleak

1. HEZITZAILEA	BAI	EZ
Hezkidetzaren oinarriak ezagutzen ditut.		
Hezkidetzaren prestaketa jasotzeko aukera dut eta aprobetxatzen dut.		
Ekintzetan daukadan eraginaz kontziente naiz eta eredu izaten saiatzen naiz.		

2. TALDE-INTERAKZIOA	BAI	EZ
Rol aldaketak ahalbidetzen ditut.		
Taldean ematen diren interakzioak analizatzen ditugu genero perspektibatik.		
Parte hartze (erabakiak eta erantzukizunak) parekidea bermatzen dut.		

3. JOLASAK EDO ARIKETAK	BAI	EZ
Jolasa edo ariketa berdintasunean aritzeko prestatzen dut.		
Gaitasun anitzak lantzen ditugu jolas eta ariketen bitartez (ez generoaren arabera baloratzen direnak).		
Planteatzen ditugun jolas edo ariketetan neskek eta mutilek parte hartzen dute.		

4. HIZKUNTZA	BAI	EZ
Haurrek esamolde sexistak erabiltzean hausnartzeko erabiltzen ditut		
Neska gutxien dituzten esaerak identifikatzen ditugu taldean.		
Hizkuntza inklusiboa erabiltzen dugu (bi sexuak aipatuz edo generikoa erabiliz.)		

5. IRUDIA	BAI	EZ
Gure zabalpenen irudietan neskek presentzia eta jarrera aktiboa dute.		
Gure zabalpenen irudietan gorputzaren aniztasuna aitortzen dugu		
Estereotiporik erreproduzitzen ez dituzten irudiak erabiltzen ditugu.		

6. TEKNOLOGIA	BAI	EZ
Ekintza positiboaren bitartez nesken artean IKT (ikus entzunezko teknologia) erabilera eta ezagutza bultzatzen dut.		
Bideo edota abestiekin, eredu alternatiboak eskaintzen ditut.		

7. TOKIA Y BALIABIDEAK	BAI	EZ
Materiala eta espazio fisikoa berdinean erabiltzen dute neskek eta mutilek.		
Neskek eta mutilek erabiltzen duten espazioa aztertzen dugu.		

8. ERREFERENTZIAK	BAI	EZ
Estereotipoetatik kanpo dauden figura erreferenteak bilatzen ditut.		

Elkar zaintza eta errespetua

Gatazka-konponketaren proposamena (KEB)

Goianen gatazka onartzen dugu, gatazkak bizitzaren parte dira eta hauei esker aurrera egiten dugu.

Gatazkei aurre egiteko, bi estrategia erabiliko ditugu:

- **Prebentzioa.** Garrantzitsua da jardueraren lehen egunetan elkarbizitza arauak adostea taldeetan.

Hezitzaileak haur guztien ezaugarriak eta beraien egoeran erreparatuko du: Nola datorren egun horretan, zein egoera duen etxean...

Ekintza kooperatiboak diseinatu, lehiakortasuna ekidinez.

Espazioaren antolaketa zaindu beharko dugu, giro ahalik eta lasaiena bermatuz.

Ume bakoitzak bere protagonismoa izan eta talde barruan zer garrantzi duen jakin behar du.

- **Komunikazio Ez Bortitza (KEB).** Gatazkak konpontzeko unean bitartekariak trebatzea ezinbestekotzat jotzen dugu beste pertsonen arteko gatazka baretzen edo konpontzen laguntzeko. Helburua denborarekin autonomia lortzea da eta bitartekariaren beharrik ez izatea. Oso garrantzitsua da bitartekariaren jarrera komunikazio ona lortzeko: EZ EPAITZEA.

Gatazka konponketarako pausuak (KEB arabera)

1. **pausoa: behaketa. Gertatutakoa kontatu** (era objektiboan, epaiketak eta sentimenduak adierazi gabe). Askotan pausu honetan eta lasaitasunez hitz eginez umeei beraiek gatazkari garrantzia kentzen diote. Txandak eta entzutea errespetatzea oso garrantzitsua da. Behaketa gertatutakoaren ebaluazioarekin konbinatzen badugu, beste pertsonak kritika bat entzutea da seguruena. Adibidez: «Baloiarekin jolasten ari nintzen eta beti bezala zu etorri zara eta kendu didazu». «Agintzaile bat zara eta zuk esaten duzuna egin behar dut». Epaiketak eta beste batzuetan gertatutakoa aldendu beharra dago, unean gaude.

2. pausoa: sentimendua. nola sentitu diren kontatu.

Pauso honetan *ondo* edota *txarto* erabiltzeak ez du balio. Hitz gehiago eman behar zaizkie sentipenak modu zehatzago batean definitzeko. Momentu batzuetan beharrezkoa izango da sentitutakoa hitzez adierazten laguntzea. Sentimenduentzako hiztegi-taula (eranskin gisa).

Gure emozioak zehaztasunez izendatu eta identifikatzen baditugu, beste pertsonenganako lotura erraztuko dugu.

3. pausoa: beharrak. Zer behar dute ondo sentitzeko?

Normalean ez gaude ohituta alderdi hau lantzerik eta are gutxiago berori hitzez adieraztera. Gure beharrak balioetsi eta ezagutu behar ditugu, besteek ere balioetsi ditzaten.

Pauso hau, laugarrenarekin batera, oso garrantzitsua da, honen bidez asertziozko pertsonak izaten ikasten dugulako. Honen bidez zera ikasiko dugu: molestatzen diguna, gustatzen zaiguna, urduritzen edota lasaitzen gaituena esatera.

4. pausoa: eskaera. Behar dutena eska dezaten.

Beti lengoaia positiboa erabiliz. Inposizioa sumatuz gero baliozko eskaera izateari utzikoa dio.

Beste pertsonen eskaerak egiten dizkiogu gure bizitza aberasteko.

5. pausoa: tratua edo akordioa (beti ez da beharrezkoa).

Eskaerak uztartzea. Momentu honetan, hemendik aurrera, etab., zer egiteko prest nago zu ondo egoteko? Eta zu ni ondo egoteko zer egiteko prest zaude? Normalean galdera horiek bitartekariak egiten ditu.

(Azken pauso hau ez da beti eman behar, bakarrik bitartekaria eta umeak azken pauso honetara heltzeko gai izan badira).

Zigorrak

Harreman egoki batean ez dago lekurik horrelako neurriak hartzeko. Beti elkar-komunikazioa erabiliko dugu arazoa aztertzeko eta ondorioak azaleratzeko. Arazoak ez dira izango zigortzeko guztiz, kontrakoa erabiliko ditugu hezitzeko.

Arrazoiak zigorrik ez erabiltzeko

a) Eredu aldetik: Guk egiten duguna egiten irakasten diegulako. Umeek bizi dutena entzuten dutena baino gehiago ikasten dute.

b) Jokaera aldetik: Autoestimuan eragina izango duelako eta askotan ez duelako ezer konpontzen, guztiz kontrakoa lortu nahi dugunaren aurkako ondorioa eragin dezakeelako: hau da, zuzendu orde, bizitu egin dezake.

Zer egin dezakegu horrelako egoerak desblokeatzeko

Hauek dira aztertu eta kontutan hartu beharreko alderdiak:

a) Hezitzailea: Noiz erabiltzen ditu zigor ? Nola sentitzen da? Zergatik erabiltzen ditu?

b) Haurra: Zer da egiten duena? Nola sentitzen da? Zer behar du? Zer lortu edo eskatu nahi du?

Diagnostiko hau egin ondoren **komunikazio ez bortitzaren pausoak erabil ditzakegu** gure hurrekin.

Erreferentziak

FEIJOO, Pilar: «Asertividad frente a los conflictos». Sorkari, Sopela, hemen eskuragarri: http://sorkari.com/pdf/Conflictos_Asertividad.pdf

MENDIZABAL, Nerea: *Komunikazio Ez Bortitza*, hartueman, <http://www.hartueman.com>

PARDO, Ana Belen: «Los conflictos en la escuela». Sorkari, Sopela, eskuragarri hemen: http://sorkari.com/pdf/Conflictos_Bulling.pdf

Elkar zaintza lantzeko adierazleak

1. HEZITZAILEA	BAI	EZ
Nere mugak eta nere egoera pertsonalaz kontzientzia dut.		
Haurren mugak eta haien egoera (nola etorri diren...) kontutan hartzen dut.		
Ez ditut haurrak epaitzen.		
KEB oinarritzko ezagutzak ditut eta praktikan jartzen dut.		

2. TALDE-INTERAKZIOA	BAI	EZ
Gatazkak KEB metodologiaren bitartez lantzen ditugu.		
Konpromisoen orria elkar zaintza erregulatzeko erabiltzen dugu. Gure konpromisoak ez betetzearen ondorioak argi ditugu.		

3. JOLASAK EDO ARIKETAK	BAI	EZ
Jolasak hautatzen ditugu helburuen arabera, lehiakortasun maila neurtzen dugu. Egunero jolas dinamika kooperatibo bat egiten dut.		
Jolasak edo ekintzak haur guztien protagonismoa bermatzen dute.		
Tarte bat gordetzen dugu nola gauden adierazteko.		

4. HIZKUNTZA	BAI	EZ
Entzute enpatikoa praktikan jartzen dut (KEB metodologia).		
KEB hitz egiteko teknikak erabiltzen ditut: ez dut orokortzen, ez dut etiketatzen... Jarrerak gaitzesten ditugu, ez pertsonak. Adibidez: <i>gezurra esan didazu, ez gezurtero bat zara.</i>		
Ahozkoan ez den komunikazioan arretan jartzen dut, gorputz adierazpena ahozkoarekin koherentzian.		

5. IRUDIA	BAI	EZ
Elkar zaintza eta tratu ona isladatzen duten irudiak erabiltzen ditugu.		

6. TEKNOLOGIA	BAI	EZ
Hauen erabileraz (sare sozialak...) taldean hausnartzen dugu.		
Zaintza eta tratu ona sustatzen duten ereduak bultzatzen ditugu.		

7. TOKIA ETA BALIABIDEAK	BAI	EZ
Sentimendu eta beharren zerrendak eskura ditugu. Arazoak konpontzeko lekua dago.		
Kiroltasun protokoloa praktikan jartzen dugu.		
Espazio seguru bat bermatzen dugu ekintzetarako.		

8. ERREFERENTZIAK	BAI	EZ
Tratu ona sustatzen duten figura erreferenteak gonbidatzen ditugu taldera.		

Parte-hartzea

Proiektuak zentzua izan dezan, Goian osatzen dugun pertsona guztien partehartzea oinarritzkoa da. Balore gisa zaindu eta landu nahi dugu.

Lehenengo, parte-hartze hitzaren definizio hau eskaini nahi dizuegu: Parte Hartuz elkarrekin dioskunez, «pertsonen komunitate bat antolatze eta mobilizatzeko prozesua da, eta, berorren bidez, eragile- edo subjektu-funtzioa hartzen dute pertsona horiek beren gain, kolektibo horren etorkizunari begira».

Egiturazko desberdintasunak eta gatazka sozialak eta politikoak zokoratzeko edo leuntzeko tresna izan daiteke partaidetza.

Parte-hartzeko baldintzak (Equipo Claves)

- parte hartzen jakitea;
- parte hartu ahal izatea;
- parte hartu nahi izatea.

Goianen Norberak hartzen dituen erabakien kargu egitea bilatzen dugu eta inguruan dugunarekiko erantzukizuna izatea, horretarako baliabideak bilatzen ditugu.

Talde asanbladak

- Asanbladak berak ez du parte hartzea bermatuko baina parte hartzea bultzatzeko eta haurrei hitza emateko baliabidea da.
- Borobilean egiten dugu, borobila itxi egiten dugu.
- Landuko diren gaiak azaltzen dira eta parte hartzaileek gaiak gehitu ditzakete.
- Asanbladara nola heldu garen komentatzeko tarte bat hartzea egokia da, haserre, nekatuta edota lasai gatozen jakiteko eta horren arabera espektatibak egokitze.
- Informazio orokorrak lantzen dira hasteko, bigarren eztabaidagarriak diren gaiak eta bukatzeko talde mailan landu nahi ditugun bestelako gaiak.
- Rolak zehazten ditugu: Nork hartuko du akta? Nork jarriko du denboretan arreta?
- Koadernoak: koaderno honetan agertuko dira talde mailako konpromisoak, asistentziaren jarraipena, akta...

- Hitzak hartzeko txandak, hasieratik banan banako hitz hartzeak antolatu. Beharrezkoa bada, totem antzeko tresna bat erabil daiteke (pilota bat, maza bat...), pilota daukanak hitza hartuko du eta besteek errespetatuko dute.

- Erabakitze entrenamenduak dira hauek, guztiontzako entrenamenduak. Hasiera batean, aukera alternatiba desberdinak eskaini daitezke adibide gisa. 10 urtetik aurrera, aukera desberdinak azaldu. Bakoitzaren alde onak eta txarrak baloratu. Taldean dagoen konfiantza mailak baldintzatu egiten du sarri talde dinamika hau.

- Helduak bere burua entrenatu beharko du modu berean, zertan? Ikasturtea pasa ahala hitz hartzeak gutxitzea izan beharko du helburu, haurren autonomia eta hitz hartzea handitzean, bere rola segurtasuna ematea izango da, ez asanblada monopolizatzea.

Ikasturte hasieran, talde mailako konpromisoak adosten...

- Ikasturte hasieran taldeak elkar ezagutzeko saio batzuk izan dituenean, taldearen dinamika adosteko momentu egokia izan daiteke.

- Goianen funtzionamendurako oinarrizkoak diren kontzeptu batzuk azalduko dizkiegu parte hartzaile guztiei (familiei, harreraren bitartez eta idatziz helarazten zaie):

- o **Kuota aktiboa:** proiektuetan parte hartze kuota oso diru gutxikoa da (honetaz kontzientzia hartzea garrantzitsua da) eta dirua beharrean **komunitate lanekin osatzen dugu gure kuota**. Beraz, lan hauek kuota parte hartzailea eta beka duten lagunek, biek egin behar dituzte. Komunitate ekintzen bitartez kuota hori osatzen dugu (kartelak jarri, lasterketa batean bolondres, talde bezala zeinetan dugu interesa?, zeintzuk dira gure konpromiso minimoak?).

- o **Beka inklusiboa:** egoera sozioekonomiko zaila duten parte hartzaileak badira gurean. Familia horiekin elkarte laguntzeko lan batzuk adosten dira eta akordio bat sinatzen da. Horri deitzen diogu beka inklusiboa. 12 urtetik gorako gazteak beka honen kargu egiten dira eta kale hezitzaileek egiten dute honen jarraipena, kontratu hezitzaile baten bidez.

- o Goianeko talde guztiek bat egiteko **komunitate ekintzak** daude: inauteriak, gabonetako jaialdia, Goian eguna, irteerak... Ekintza hauek aurrera ateratzea guztion lana izaten da eta talde izaera ematen digu, gainera oso dibertigarriak izaten dira! Zeinetan parte hartu nahi dugun zehaztu dezakegu.

- o Talde **errefortzurako ekintzak:** urtean zehar taldean arazoak ematen badira edo gai zehatz bat landu nahi badugu, aukera dugu errefortzu lana egiteko (gatazkak konpontzeko, hezkidetzak lantzeko, kontsumoa...). Errefortzu tailer hauek hezitzaileak proposatuko ditu eta saioen ordutegian egiten saiatuko gara. Goianen ezaugarri bat da irizpide hezitzaileetan sakontzea eta ekintzaren parte da.

- Taldeko rola hitzartu ditzakegu: Materiala nork eramango du? Txandak egingo ditugu, gatazkak konpontzeko pausoak...

· Talde mailako konpromisoak adostuko ditugu eta betetzen ez badira zer ondorio izango dituen.

Konpromiso taula

Parte hartzaileenak.

Hezitzailearenak.

Goian Gaztearenak.

· Konpromiso taula horretan idatzirik egongo dira ere elkarbizitzarako oinarrizko arauak, oso sinpleak eta betegarriak. Bete ezean zer planteatzen dugun agertzea ere komeni da.

o Norbait berandu badator, taldera gehituko da hurrengo ariketan.

o Entrenamenduetara etortzea baldintza da partidua jokatzeko, esaterako...

· Talde mailako ekintza bereziak adostu ditzakegu. Ekintza hauek planteatzean negoziatziorako aurrez prestatzea beharrezkoa da eta elkarte bezala ditugun mugak azaltzea. Akanpadan adibidez, lehentasuna izango dute kuota eta beka bete dutenek, plaza mugatuak ditugulako.

· Kotsentsua lehenetsiko dugu bozkaketen aurrean, talde mailako adostasuna lortzeko malguak izaten ikasi behar dugu guztiok.

· Akta hartzen duen pertsonak akordioak idatziko ditu. Akordioei balorea ematea garrantzitsua da, eskua emanez, besarkatuz, sinatuz...

· Azkenik lortutako akordioak bergogoratuko ditugu.

· Hurrek konpromisoak bete beharko dituzte baina helduek ere, haiek zerbait erabakiz gero guk horretan lagundu (ekintza berezi bat prestatu) edota erabakiak errespetatu beharko ditugu. (Parte hartzearen neurgailu bat izan daiteke, helduek proposatutako ekintzen %100 egin bada, hurrena zenbatekoa da?).

· Talde mailako hitzarmenak adin eta ulermen maila desberdinetara egokitzeko, saioak prestatu ditzakegu. Saio tipo batzuk: LH lehen zikloa, bigarren zikloa...

· Asteko lehen saioan egitea aproposagoa da.

· Asanbladaren helburuak argitu.

Hiru hilabetero, konpromisoak berrikusi

Ikasturte hasieran adostutako konpromisoak betetzen ari garen berrikusiko dugu. Konpromisoak, elkar bizitza arauak, ekintza bereziak... alda daitezke, beste batzuk jarri, erregulatu.

Erreferentziak

APODAKA, Marije, Gotzon QUINTANA eta Bea UGARTE: «Partaidetza: gurekin bada, izango da». hik hasi, 2013, eskuragarri hemen:

http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2013/10/1498218843-Partaidetza- OSOA.pdf

EQUIPO CLAVES: Gestión participativa de las asociaciones. Promocion Popular, Madril, 1994.

Parte-hartzea lantzeko adierazleak

1. HEZITZAILEA	BAI	EZ
Haurren adina eta ezaugarrietara egokitutako parte hartze dinamikak prestatzen ditut.		
Haurrekin hartzen ditudan erabakiak errespetatzen ditut.		
2. TALDE-INTERAKZIOA	BAI	EZ
Ikasturte hasieran guztion artean konpromisoak adosten ditugu eta betetzen ez badira ondorioak ere.		
Talde mailan rolak eta erantzukizunak partekatzen ditugu.		
Talde mailako sinergiak, harremanak, lidergoak hausnartzen ditugu.		
3. JOLASAK EDO ARIKETAK	BAI	EZ
Erabakitzeko aukera ematen didaten ariketak dira.		
Parte hartzeko tarteak gordetzen dugu ekintzetan.		
Parte hartzaileek aukeratutako jolasak edo ariketak egiten ditugu.		
4. HIZKUNTZA	BAI	EZ
Esan dudana ulertu dutela ziurtatzeko errepikatzen animatzen ditut: "zer ulertu duzu?" Esan dutena ulertu dudala ziurtatzeko errepikatzen dut: "hau ulertu dut, hala da?".		
Hitz hartzeak orekatzen ditugu.		
Komunikatzeko beste modu batzuk (mugimendua, dinamika bereziak...) ahalbidetzen ditut hitzaz gain.		
5. TEKNOLOGIA	BAI	EZ
Teknologia berrien erabilera parte hartzailea sustatzen dugu.		
6. TOKIA ETA BALIABIDEAK	BAI	EZ
Erabiliko ditugun esparruak, materialak erabakitzen ditugu, zaintzen ditugu eta haiekiko ardura dugu.		
Parte hartzea bermatzeko espazioaren antolaketa kontutan hartzen dugu.		
8. ERREFERENTZIAK	BAI	EZ
Beste esperientzia, talde, eragile, prozesu parte hartzaile batzuk ezagutzen ditugu.		

Euskaraz komunikatzea

Zer egin beharko genuke euskararen erabilera sustatzeko?

1. Parte hartzaileei **beti euskaraz egin**.
2. **Izan begirale berritsuak**: zenbat eta elkarriketa gehiago sortu, hobe. Ahal duzuen guztietan beraiekin batera aritu eta beraien elkarriketetan parte hartu, berri bat sortu, beraiekin jolasten hasi...
3. **Errefortzu positiboak eman**.
4. **Hezitzaileen artean, beti euskaraz**. Haurrek zuek gaztelaniaz egiten duzuela sumatzen badute, zuen sinesgarritasun guztia galduko duzue.
5. **Errealistak izan** eta gure taldearen egoerari dagokion helburua finkatu. **Helburu xumeetatik abiatu**.

Zer ez dugu egin behar?

- Ez erabili **egin euskaraz!** edo antzeko esaldirik.
- Ez kargu hartu euskaraz egiten ez dutelako, ez errudun sentiarazi.
- **Ez zuzendu**: komunikatzen badira, balio du. Hori bai, zerbait adierazteko laguntza eskatzen badizuite, eman. Laguntzea komenigarri ikusten baduzue baliabideak eskainiz lagundu. Baina ez zuzendu.
- Hizkuntza kontuetan behintzat, **ez zigorrik eta ez mehatxurik**. Ez dugu ezer aurreratuko.

Zer egin euskaraz hitz egiteko zailtasunak badituzte?

Euskararen erabilera sustatu nahi dugu, baina parte hartzaileek zailtasunak dituzte euskaraz egiteko. Zaila da erabilera lantzea ez dutelako gaitasunik. Aldatu dezagun ikuspegia: gaitasuna izateko erabili behar dute. Guk lagundu beharko diegu erabiltzen eta gaitasunak garatzen. Biak batera doaz.

Horretarako:

- Den dena esplizitu egin: ereduak behar dituzte.
- Hezitzaile berritsu moduan jokatu: elkarriketa asko sortu eta elkarriketa asko bideratu.

Hurrengo puntuetan proposatzen zaizuen lagungarria izan daiteke.

Zer egin beraien elkarrizketak bideratzeko? Niri egiten didate baina beraien artean...

Ohiturari botatzen diogu errua, baina hemen ere beraien euskara maila baloratu behar dugu: guk beraien artean euskaraz egitea nahi dugun egoera horietan ba al dute horretarako gaitasunik? Adibidez: bata bestea konbentzitu nahi badu jolas bat egiteko, ba al du baliabiderik euskaraz bere nahi hori azaltzeko, bestearen argumentuei aurre egiteko, emozioak eta sentimenduak adierazteko? Askotan gure eraginez soilik izango da lorgarria beraien artean euskaraz egitea: elkarrizketa bideratu eta baliabideak eskaintzeko gu tartean gaudelako.

- Elkarrizketa erabat bideratuak: galdera nahiko itxien eta bata besteari zerbait esatera bideratuz. Etengabe ereduak eman beharko dizkiegu baina lortu behar dugu beraien arteko elkarrizketa izatea.
- Elkarrizketa nahiko bideratuak: adi gaude eta baliabideak falta zaizkienean tartean sartzen gara laguntzeko.
- Elkarrizketa naturalak: gure presentziarekin laguntzen diegu euskara mantentzen. Gaitasuna izan arren erraztasun gehiago dute askok gaztelaniaz.
- Eusle metodologia egokitu: hizkuntz ohiturak aldatzeko asmoz, talde bakoitzean txandaka umeei euskarari eusteko konpromisoa hartzen dute.

Zer egin beraien artean gaztelaniara jotzen badute? Ni beraiekin nagoenean egiten dute baina gero...

Lehenik eta behin kritikoak izan eta baloratu benetan hori eskatzeko mailarik baduten: benetan badute gaitasuna eta erraztasuna beraien artean natural euskaraz aritzeko? Edo normala da gaztelaniaz erraztasun gehiago izatean gaztelaniara jotzea?

Benetako egoera bigarren hau bada, negatibotik baino positibotik ikusi: ea lortzen dugun gu ez gaudenean ere, tarte batzuetan behintzat, beraien artean euskaraz egitea. Badakigu beraientzat ahalegin bat dela baina iruditzen zaigu aurrera pausoak eman daitezkeela. Eta lortzen duguna, batzuetan gutxi iruditu arren, lorpen handi bezala ikusi.

Zer egin parte hartzaile batek ez duela euskaraz egin nahi esaten badu?

Ez daukat argumentatzen hasi beharrik eta azalpenak ematen hasi beharrik. Mezua argia da: guk euskara asko eta gustura erabiltzen lagundu nahi diogu.

Ondo dago ulertzen ahalegintzea: zergatik esaten du hori? Batetik, euskararekin duen harremana egongo da tartean (behar baino txikiagoa eta eskasagoa). Eta bestetik izaerak ere izango du eragina: erosoago sentitzen den hizkuntza soilik erabili nahi izatea, esperientzia txarrak... Irizpideak erabiltzen jarraituko dut, helburua ondo egokituko dut, eta lortzen dudanean euskara (apur bat bada ere) erabiltzea errefortzu positiboak

ematen ahaleginduko naiz: ikusi dezala bere ahalegina baloratzen dugula, konturatu dadila zenbat pozten garen euskara pixka bat erabiltzen badu...

Zer egin euskara ulertzen ez duen norbait taldean dagoenean?

Zalantzarik gabe honek asko baldintzatzen du hezitzaileen jarduna. Aukera egokiak izan daitezke:

a) azalpenak euskaraz ematen ditugu. Euskara ulertzen ez duenari, berari bakarrik, gaztelaniaz ematen dizkiogu. Ondo dago berari horrela jokatu dugula azaltzea eta arrazoa azaltzea: jarduera euskaraz da, guk erabilera lantzen dugu, eta horregatik euskaraz egiten dugu. Baina, noski, berak ere ondo pasatzea eta gustura egotea nahi dugu.

b) Arauak edo eguneroko azalpen laburrak euskara hutsean emango ditugu. Lehenengo bi-hiru alditan berari errepikatu dizkiogu, baina euskaraz eta erdaraz, eta handik aurrera euskara hutsean. Etxera joan aurretik, *GUZTIA JASO, recoger todo antes de ir a casa, GUZTIA JASO*.

c) Galdera itxi batzuekin jokatzeko tarteka eta errefortzu positiboak ematea. Adibidez: guztia jasoko dugu. Bai? Guztia jasoko dugu. Bai. Primeran. Laster ikasiko duzu euskara!

Zer egin taldeko batzuek euskara ez dakitenean?

Batek ez dakienean, tira. Baina lau edo bost badira ez dakitenak, oso zaila da euskararen erabilera sustatzea jarduera horretan. Normalean testuinguru nahiko erdaldunetan gertatzen da hau: euskaraz dakitenek erraztasuna gaztelaniaz dute eta batzuk euskararik ez dakite. Hiru proposamen:

a) taldeei azalpenak euskaraz lehendabizi eta ondoren gaztelaniaz. Arauak edo eguneroko azalpen laburrak euskara hutsean izatera iritsi gaitezke (5. puntuaz azaltzen den moduan).

b) Euskaraz dakitenei, beraiekin ari garenean, beti euskaraz egin (ahalegin bat eskatzen digu batzuei erdaraz eta besteei euskaraz egin behar izatea nahasgarria ere badelako).

c) Taldeak egiten diren jarduera batzuetan taldeak hizkuntzaren arabera banatu. Euskara dakitenak talde batzuetan eta besteak besteetan. Une horretan gure nahia adierazi (hemen zaudetenek badakizue euskara eta ahaleginu behar dugu euskaraz egiten) eta elkarrizketak bideratuz beraiei euskaraz egiten lagundu.

Zer egin nire euskararekin segurtasunik ez badut?

Hizkuntza eta xaboia. Xaboia zenbat eta gehiago erabili gastatu egiten da. Hizkuntza zenbat eta gehiago erabili indartu eta aberastu egiten da. Argi izan ideia hori buruan. Segurtasunik ez baduzu, ez kezkatu:

- akatsak egitea librea da: euskara onean bada hobe, baina ez kezkatu akats batzuk egiten badituzu.
- Zure buruarentzat erronka edo jolas moduan hartu: zure buruarentzat erronka bat izan daiteke jarduera osoan zehar euskaraz egitea eta erabilera sustatzea. Lortuko duzu!
- Laguntza eskatu: zenbait azalpen emateko baliabideak falta bazaizkizu, ingurukoei eskatu. Bat-bateko egoera bat bada eta ez baduzu aukerarik horretarako, ahalegina egin euskaraz emateko azalpena. Ez bada oso zuzena hizkuntza aldetik, aukera duzunean galdetu norbaiti.
- Hezitzailea zara: hau ez inoiz ahaztu. Zu hezitzailea zara. Lan bat egiten ari zara. Koherentzia bat behar duzu. Euskaraz egiteko eta euskara sustatzeko eskatu dizute eta zu prest zeunden. Ba aurrera. Perfektuak ez gara (hizkuntza aldetik ere agian ez) baina bai hezitzaile onak.

Zer egin gaztelaniara jotzen badut batzuetan?

Parte hartzaile batzuk beti erdaraz egiten didate eta batzuetan ohartu gabe ni ere gaztelaniaz hasten naiz. Zenbat eta gutxiagotan geratu, hobe. Gertatzen zaizunean, ohartzen zaren momentuan euskarara itzuli. Modu batzuk daude:

- euskaraz egiten hasi segituan.
- Elkarrizketatik atera (beste zerbait egiten hasi edo ixilik geratu) eta denboratxo bat pasatzean euskaraz itzuli elkarrizketara.
- Zure buruari lelo bat jarri itzultzen lagunduko dizuna: *ekin berriz ere, ni ere banaiz kaskagorra...*

Zer egin hezitzaile batzuen artean erdaraz egiten badugu?

Garrantzitsua da, gutxienez jardueran zehar, zuen artean euskaraz egitea. Koherentzia ematen diogu gure lanari. Zuen artean erdaraz egiteko ohitura baduzue zaila izaten da euskara mantentzea. Hiru proposamen:

- jarduera hasi aurretik zuen artean hitz egin. Adostu euskaraz egingo duzuela.
- Batak besteari baimena eman atentzioa deitzeko. Hau da: hezitzaile batek edo batzuek gaztelaniara jotzen badute besteek baimena izan dezatela euskaraz egiteko eskatzekoa.
- Jolas edo dinamika bat sartu tartean. Adibidez, mezu sekretua, semaforoa...

Erreferentziak

GEU Elkartea, <https://geuelkartea.eus/>

Lan tresna interesgarriak

ZER	NON
Kirolerako entrenamendu fitxak	www.kirolaeuskaraz.net
Marrazki bizidunak	http://marrazkiak.euskal-ecodings.com
Antzerki-testuak	www.teatro-testuak.com
Karaokea, musika	www.txantxangorria.eu www.badok.info www.kantuan.net
Ipuinak entzuteko	www.etxegiroan.eu
Jolasak	www.aisia.net/jolasak
Hitz-jokoak	Youtuben: <i>Txantxariak</i> sartuta www.xedera.com
Bestelako webguneak	www.txiki.net www.aisia.net www.emangiltza.com www.childtopia.com Jakin! Euskal triviala
Aldizkariak	www.karramarrodigitala.com
Euskarazko produktuen katalogoa	www.katalogoa.org
Hiztegiak	www.hiztegia.net

Euskara lantzeko adierazleak

1. HEZITZAILEA	BAI	EZ
Haurrekin euskaraz egiten dut, ulertzen ez badute haiei gazteleraz errepikatzen diet.		
Hezitzaileen edo helduon artean euskaraz egiten dugu.		
Aisialdian euskara sustatzeko baliabideak jaso ditut edo baditut.		

2. TALDE-INTERAKZIOA	BAI	EZ
Helduarekin euskaraz egiten dute parte hartzaileek.		
Haien artean euskaraz egiten dute.		
Euskara ez dakienari laguntzen diote.		

3. JOLASAK EDO ARIKETAK	BAI	EZ
Jardueraren azalpena euskaraz egiten dut eta beharrezko duenari, gazteleraz.		
Taldearen ezaugarri eta ezagutzaren arabera hizkuntzaren erabilera moldatzen dut.		
Jolasa, kirola edo ekintzaren inguruko lexiko zehatza euskaraz ezagutu eta erabiltzen dugu.		

4. HIZKUNTZA	BAI	EZ
Jarduera euskaraz burutzen dut.		
Euskara lehenesten dut nahiz eta beste hizkuntza batzuk erabiltzen diren taldean.		
Taldeak euskara erabiltzen du.		

5. IRUDIA	BAI	EZ
Kanpora begirako irudi, oharretan, euskara lehenesten dugu.		

6. TEKNOLOGIA	BAI	EZ
Euskarazko baliabide teknologikoak erabiltzen ditut: Abestiak, filmak, aplikazioak...		
Komunikazioan euskara lehenesten dut (whatsapp, twitter, facebook, irratia...).		

7. TOKIA	BAI	EZ
Euskara baliabideak ezagutzen eta erabiltzen ditut.		
Esparru euskaldunak sustatzen ditut edota esparruak euskalduntzen ditugu (euskarazko kartelak).		

8. ERREFERENTZIAK	BAI	EZ
Taldeetatik kanpo erreferentzia euskaldunak bilatzen ditut.		
Gurasoak eta ikusleak euskaraz egiteko baliabideak eskaintzen ditut: leloak, abestiak...		
Euskaraz diren kanpo ekintzetan parte hartzea sustatzen dut: Kontzertu bat, bertso saioa...		

Kultur aniztasuna balorean jarri

Askotan esaten dugu, gure lana kultur aniztasunean hezte dela. Zer esan nahi du horrek? Bi esanahi nagusi dituela deritzogu. Alde batetik, beste jatorri batzuetako hurrekin hezkuntzan aritzea (arrazoi horregatik, hain zuzen ere, arreta behar duten zenbait egoeratan aurki gaitezke: diskriminazioa pairatzea, pobrezia jasatzea, tokiko gizartearen hizkuntza edo hizkuntzak ikasteko premia, ingurune berri batera egokitzeko beharra, lagun berriak egitea...). Beste aldetik, kultur aniztasunean hezteak ikasle orok (eta ez bakarrik jatorri atzerritarra edo bertakoa duenak) mundu anitzean era positibo baten bizi daitezen, hau da, norberakiko bereizgarri kultural ezberdinak dituen pertsonekin elkarbizi ahal izateko garatu beharko trebetasun eta jarrera bilduma da.

Noizean behin gure buruari egin diezaiokegun galdera ea gure proiektua helburu hauek sustatzen ari ote den da. Jatorri ezberdineko pertsonen elkartzeak ez du berez, kulturartekotasuna bermatzen. Hezitzaile gisa, lan egokia garatu behar da kulturartekotasuna eman dadin. Beste galdera egoki bat honako hau izan daiteke: Ez al genuke pertsona hezitzaileok elkarbizitza-gaitasun horiek garatu beharko (eta ez bakarrik lan egiten dugun gazteen artean sustatu)?

Jarrera bat lantzeaz ari gara. Ez da beharrezkoa asko jakitea beste pertsonen kultureei buruz (nahiz eta bestearentzat garrantzitsua zer den jakitea ondo datorren, kulturala izan ala ez). Gakoa jarrera enpatikoa, errespetua, beste pertsonengan interesa, erlazio positiboak... izatean datza.

Ikasleak atzerritar bezala ez tratatzea oinarritzkoa da, bere *atzerriko* nortasunean ez tematzea. Goianeko haur eta gazte guztiak hemengoak dira, berdin du non jaio diren. Batzuetan entzuten dugu: «baina *bere kultura* hau horrela egiten dute». «Bere kultura?». Kultura bakarra, definitua eta jatorrizko herrialdekoa izan beharko balitz bezala. Seguru haur horrek bere familiaren jatorrizko herrialdearekin erlasionatutako bizipen kulturalak izan ditzakeela, baina era berean, **hemen ari da hazi eta hezten** eta hemengo edozein gaztek bezala, hemengo erreferentzia asko barneratuko ditu. Beraz, *bertako* bezala tratatua izateko eskubide osoa du. Honetaz gain, familia eta jatorri taldearen erreferentziak izango ditu eta hauek, jatorri bereko jendearen artean oso ezberdinak izan daitezke.

Modu honetan bakarrik lortu ahal izango gu *identitate anitza*, *bertakoa* sentitzeko aukera emango diona, *hangoa* izateari utzi gabe. Bata aukeratuz besteari traizioa egiten diola sentitu gabe. Badaude inongoak sentitzen ez diren gazteak. Sustrairik gabeko sentimendu honek gazte hauen artean kalte handia eragiten du, baita gizarte mailan ere. Hezkuntzaren bidez, hau ekiditen lagun dezakegu.

· **Ez da komeni ikasleak eta bere familiak *etnikoki* tratatzea.** *Cus-cusaren pedagogia* deritzona baztertu behar dugu. Askotan autoktonook atzerriko jatorria duten pertsonen inguruan dakigunaren arabera jokatzeko eskatzen diegu: henna tailerra edo cus-cusa Marruekosetik bazatoz, tea prestatzea saharauia bazara, bongoak jotzea Afrikako beste zenbait herrialdeetatik etorritakoei... Herrialde aberatsetako etorkinei eta bertako

pertsonei ez zaie besteen aurrean performance etnikoak egitea eskatzen; izan ere, bertako jendeak gehienetan ez dute bere burua "etnikoa" gisa ikusten (horregaitik festa batera esaterako, Eroskiko patata poltsak eraman ditzakete), besteak dira etnikoak eta horregaitik, denbora guztian jatorrizko herriko gauza tipikoak egin behar dituzte.

- Erlatibismo kulturalaren arriskua hor dago, hots, beste kultura batzuetatik datorren guztia azterketa kritikorik gabe onartzea, horretan ez erortzen saiatu beharko gara. Gure proiektuak balore ezagun batzuk ditu eta gerta daiteke, gure gazteen familiek %100ean hauek ez partekatu ezta praktikatzea ere. Bertako kulturen, adibidez, gizen edo zaharren aurkako fobiak, lehiakortasun gaixotia, homofobia eta lesbofobia... aurki ditzakegu. Guk ez dugu lehenago halako jarrierarik ez sustatu edo defendatuko nahiz eta gure artean hala jokatzeko duten familiak egon. Guretzat oinarritzekoak dira esaterako genero berdintasuna eta dibertsitate afektibo-sexualaren aitortza, eta hauek gogoan izan behar ditugu bai gure diskurtsoan baita gure eguneroko praktikan ere.

- Gure neska-mutikoak, kasu batzuetan, jarrera eta praktika matxistak, lesbofobia eta homofobia, elitista eta klasistak, txirotasunfobia... dituzten familietatik etor daitezke. Gu geu ere, hezitzaile gisa, ez gaude jarrera eta praktika hauetatik libre. Ez da gure zeregina familia hauek eraldatzea (nahiz eta gure lanaren eragin positiboa eurenganaino heldu daitekeen), neskamutikoei bestelako eredu eta bizipenak eskaintzea da gure egitekoa.

- Familiekin dugun harremana eraikitzailea izatea garrantzitsua da, haiekiko dugun harremana gure iritzia eta epaiek ez baldintzatzea lortu behar dugu («familia hau arrazista, matxista... da»). Familiekin dugun harremanak errespetuzko elkarriketa erraztu beharko du, seme-alabaren heziketa prozesuari buruzko negoziaketeei bide emanez. Nahiz eta guztiz ez konektatu beraien ideia eta balioekin, familiekin onarpenetik erlazionatzea garrantzizkoa da. Entzun, ulertu, tratatu ona eman beharko genieke nahiz eta haiekin guztiz ados ez egon... ez dugu ahaztu behar gure benetako helburua neska-mutiko hori dela eta berak, bere familiarekin behar den elkarriketa guztia merezi duela.

- Familia batekin **sortu daitekeen desadostasun baten aurrean, zer den garrantzizkoa (gure balore nagusiak) eta zer ez (negoziatu daitekeena) ondo desberdindu beharko genuke.** Adibidez, neskatoa igeriketa ikastarora joaten ez denean, beharbada, bainujantziaren neurria negoziatu dezakegu edo aldagelaren erabilera intimitatean (gure heziketa proiektuan bigarren mailako eztabaidak izan daitezke azken hauek, neskaren parte hartzea berriz, lehenengo mailakoa izanik).

- **Sortzen den edozein arazoren aurrean ez zaio familiaren kulturari errua egotzi behar.** Badira, jatorria dena delakoa izanik ere *Salvame* programarekin harrapatutik dauden familiak, aurrez prestatutako janariarekin elikatzen direnak edota txakurra bide ertzean abandonatu dutenak..., finean, familia bakoitza den bezalakoa da eta ez da dena *kulturala*. Pertsona edo gizabanako faktorea ahaztu gabe, familian dena homogeneouskoa ez delako. Ama eta aitaren, biak egon ezkerro, jarrerak, ideiak eta praktikak ezberdinak direla aurkitu dezakegu.

· **Atzerritako jatorria duen neska-mutikoa ez dugu bere kulturaren ordezkari hartuko.** Islama banderatzat hartuz atentatu bat burutu denean, gerta daiteke baten bat gazte musulman batengana joatea gai honi buruz hitz egitera, gazte hau atentatua burutu dutenen talde berdinekoa balitz bezala! Eta gazteak errekurtsorik gabe, defentsibara jar daiteke planteamendu faltsu horretan. Gure gazteak horrela tratatzea ondorio txarrak izango ditu zalantzarik gabe, beteko den autoprofezia bihurtu liteke.

· **Auzokide ijitoak ez dira etorkinak** eta ez da zuzena biztanleria talde honi buruz hitzegitean horrela adieraztea. Izatekotan, bada mendeetan zehar diskriminazioa jasan duen kolektiboa eta neurri handi batean, oraindik gaur egun, desabantaila soziala pairatzen duena. Badira atzerriko jatorria duten bizilagunekiko jarrera positiboa duten hezitzaileak baina ijitoekiko jarrera negatiboa dutenak, kolektibo honen inguruan zabaldutako estereotipoak bere egin dituztelako askotan ijitoekin hartu eman zuzenik izan gabe. Hezitzaile batentzat une oro da egokia bere burua aztertu eta talde sozial ezberdinei buruz dituen iritzi orokorrak berrikusteko. Estereotipo eta aurreiritziak ez dira bide lagun onak talde hauetako auzokideen seme-alabekin lan egiteko eta hezitzaileak, zentzu honetan bere burua aztertu eta berrikusi beharko du.

· **Adi alderdi sozioekonomikoarekin.** Atzeritar jatorriko eta ijito ikasleetako batzuk desabantaila sozioekonomikoan aurki daitezke. Arreta jarri beharko dugu adibidez ekipamenduan (jantzi eta oinetakoak), kuoten ordainka eta bidaietan, edota jai baterako zerbait prestatzeko eskatzen diegunean esaterako. Gure gaztetxoek egoera ekonomikoa kontutan hartuz bidezko parte hartzea ahalbidetu beharko dugu.

Erreferentziak

A. Barquín (2009). ¿De dónde son los hijos de los inmigrantes? La construcción de la identidad y la escuela. *Educar*, 44: 81-96. Hemen ikus daiteke osorik:

<http://www.raco.cat/index.php/educar/article/view/200834>.

A. Barquín (2015). ¿Qué debe hacer la escuela con las culturas familiares del alumnado inmigrante? *Educar*, 51 (2) 443-464. Hemen:

<http://educar.uab.cat/article/view/v51-n2-barquin>.

Nire ikastetxean neska musulman batzuek ez dute dutxatu nahi hezkuntza fisikoaren ostean. Irakasle batzuen gogoetak. *Kinka*, 29-9-2017.

Irakasle: klaseko lehenengo egunean Bartzelonako sarraskiaz hitz egingo duzu? *Kinka*, 7-9-2017

Irakasle, nola tratatuko duzu Pariseko sarraskia zure ikasle musulmanekin? *Kinka*, 15-9-2015

Kultur aniztasunarekiko errespetua lantzeko adierazleak

1. HEZITZAILEA	BAI	EZ
Haurrekiko eta haien familiekiko etiketak, epaiak ekiditen ditut.		
Ez naiz erlatibismo kulturalen erortzen, Goianeko baloreak eta mugak ezagutzen ditut.		

2. TALDE-INTERAKZIOA	BAI	EZ
Taldean eman daitezkeen botere harremanetaz kontziente naiz eta hori saihesteko baliabideak jartzen ditut.		
Taldean ematen diren familiaren jatorriaren araberrako taldekatzeak orekatzen ditugu.		
Jatorriaren araberrako gutxiespenik ez dugu onartzen.		

3. JOLASAK EDO ARIKETAK	BAI	EZ
Nere taldean dagoen aniztasuna kontutan hartzen dut ekintzak antolatzean.		
Taldean dagoen aniztasuna, interesa, jakintzak... aprobetxatzen ditut, forzatu gabe taldea aberasteko.		

4. HIZKUNTZA	BAI	EZ
Errealitate guztiak isladatzen ditu hezitzailearen diskurtsoak, inor kanpoan utzi gabe.		
Hizkuntzak ez dira inor baztertzeko erabiltzen.		
Euskara guztion hizkuntza inklusibo gisa erabiltzen dugu.		

5. IRUDIA	BAI	EZ
Erabiltzen dudana iruditegian elkartearen baitan dagoen kultura aniztasuna isladatzen dut.		

7. TOKIA BALIABIDEAK	BAI	EZ
Kultur aniztasunak desberdintasun sozioekonomikoekin daukaten loturaz jabetuta, irizpide hauek beka eta harrera egitean kontutan hartzen ditut.		
Goianeko parte hartzaile guztiek ekintzak burutzeko beharrezko dituzten baliabideak izatea bermatzen dut.		
Hiri mailako baliabideak haur guztiei ezagutarazten dizkiegu.		

8. ERREFERENTZIAK	BAI	EZ
Jatorri desberdinetako erreferentziak probesten ditut (saski jokalaria bat, guraso bat, begirale bat...).		
Kultura desberdinetatik gure baloreekin bat datozen erreferentziak erabiltzen ditut.		

Auzo komunitatea

Goian komunitate proiektua diogunean zertaz ari gara? Auzoan, auzoarekin eta auzokideekin hazten doan ekimena dela gurea, hortarako ezinbestekoa da berau ezagutu eta bere errealitateaz bustitzea. Gure auzoan ezaguna bihurtu zen «harrien atzean auzo bat bizi da» esaldia, alegia instituzioetatik bultzatu izan den auzo ereduak ez dituela auzokideon beharrak aintzat hartu eta, gehiegitan, bisitarientzat erakargarria izan zedin esku hartzeak lehenetsi direla adierazten duena. Zer auzo bizi da baina harri horien atzean? Zeintzuk dira bertan bizi garenon beharrak eta nola asetu?

Alde Zaharraren egunerokotasuna bizi eta ezagutzen hasi ezker, auzokideon aniztasuna izango da antzemango duzun lehen ezaugarria, anitzak gara jatorri aldetik, kultura aldetik, biografia aldetik, gaitasun aldetik... Auzokoak ezagutzen hasten bazara, behar desberdinak dituztela konturatuko zara, askok bizi baldintza gogorrek dauzkatela auzoan, egoera ekonomiko gogorra, jatorri edota sinesmen arrazoiengatik zokoratuak direla agian edota aitona eta amona asko urteak daramatzatela etxetik irteten ezinik... Etxebizitzek arazo larriak dituzte, zonalde batzuetan bereziki, egoera prekarioan aurkitzen dira. Santo Domingo kaleko egoera da honen adierazle nagusia egun.

Gure auzoak elkar ezagutu eta gozatzeko esparru ireki gutxi ditu bere egitura berezia dela eta, auzoko betiko komertzioa gutxinaka desagertuz doa... hau guztia ere gertatzen da *harri horien atzean*.

Honen aurrean, auzo komunitatea eraiki eta bultzatzearen aldeko apostua egiten dugu auzoko pertsona eta eragile desberdinek. Auzokideon artean antolatu eta elkarrekin lan eginez, gure desberdintasunak aintzat hartuz eta elkartasunez jokatzuz hain zuzen. Komunitate pragmatiko baten aldekoak gara beraz, praktikoa izatea nahi dugu, egingarria. Hori hala izan dadin, beharrezko ditugu konpromisoa eta parte hartzea eta ardurak gure gain hartzea. Ezagunak ditugu lanabes hauek gurean, Alde Zaharrak bere bereak ditu dagoeneko:

- **auzolana:** komunitatea hobetzeko egiten den lan kolektiboa da. Egun lan bolondresari erreferentzia egiten bazaio ere, aintzinan komunitatearen parte ziren guztiek komunitate hori hobetzeko egin beharreko lana izendatzeko erabiltzen zen. Gurean, auzolana frontoia berreskurapena izan liteke adibide ederra.

- **Elkarrekiko babesa eta laguntza:** guztiok aseturik ez dauzkagun behar material, afektibo edo dena delakoak ditugu. Modu berean, guztiok dauzkagu konpartitzeko gaitasun, abilitadeak, afektuak, jakintzak... Auzokideon artean konpartitzeko ariketa horiek, elkarren arteko babes sareak sortzeko lehen pausuak izan daitezke (Auzoko, Sukaldean Solasean, Hazierak..., honen eredu izan daitezke).

- **Auzo elkartasuna:** auzoak auzokide batzuek diskriminazioa jasan izan dutenean auzokide horiei babesa eskaintzea, esaterako Gasteizko komunitate magrebiarrak arrazakeria instituzionala jasan izan zuenean auzoan egin zen errekonozimendu ekitaldia.

- **Autogestioa:** horizontaltasuna (bai antolaketan baita ekintzaren garapenean) oinarri duen auto antolaketa modua da, komunitateak dituen baliabideekin eta instituzioekiko menpekotasunik gabeko ekimenak dira. Auzoan Zaharraz Harroko jaien antolaketa esaterako.

- **Saretzea:** auzoko eragile desberdinen artean konplizitateak batu eta elkarrekin lan egitea da. Auzo mailako problematikei era bateratuan erantzutea (Eskolaren aldeko kanpaina, Azao plataforma...).

- **Komunitate dimentsioa:** norberaren beharretatik behar kolektiboetara salto egiten dugunean, auzoko pertsona eta talde batzuek arrazoi desberdinengatik (adina, egoera ekonomikoa, osasuna...) behar berezituagoak dituztela konturatuko gara. Auzo mailan egoera horiek hobetzeko ekimenak abian jartzen baditugu, komunitate dimentsioa ematen diogu gure lanari. Egun Caritasek, Saregunek, Berakhak, Osasun Zentroko komunitate taldeak..., halako ekimenak burutzen dituzte egunerokoan.

Eta guk egitasmo gisa, zer eskeini dezakegu komunitate horren eraikuntzan? Ba gure eguneroko zereginean dugu lanabes ezinbestekoena haur, gazte eta helduekin harremanean oinarritzen baita gure proiektua eta harreman horiek eraikitzea, zaintzea eta sustraitzea da edozein komunitateren eraikuntzan oinarri. Baina badira ere Goianen egunero praktikan kontutan izan ditzakegun bestelako kontuak, erabiltzen ditugun esparruen ezaugarritzea, auzoko eragileekin elkarlana edota ezagutza, auzoko errealitatea kontutan hartzea plangintzatzean, bertako komertzio eta denda txikietan kontsumitzea edota inguruko eragileekin saretzea auzo komunitate horren eraikuntzan aurrera egiteko.

Auzo izaera garatzea amaierarik gabeko prozesua da. Helburu gisa jartzen dugu gure proiektu guztietan, baina noiz lortzen da? Auzo izaera eginez goaz, aldakorra da prozesuan parte hartzen duten protagonisten arabera, momentu batzuetan oso intentsoa (Zaharraz Harron, esaterako, auzoko jaietan) eta besteetan oso lausoa... Sarean lan egitea gure jardunean oso garrantzitsua da, auzoko beste eragileekin harremanean, horrek aukerak eta eragina biderkatzen laguntzen digu. Gurean parte hartzen duten haurrek mugimendu feministarekin batera bideo bat egin dezakete, Zaharraz Harroko jaietan auzoko merkatarien produktuak batu, adinduen erresidentziarekin batera baratzea martxan jarri edota

Osasun Zentroko erizainekin tailer bat egin. Goianeko zikloa bukatzen dutenerako auzoko eragile eta kolektibo desberdinen argazki orokor bat izan dezakete, elkarlanean ibili dira askorekin eta auzo horren parte sentitzen dira edo gara, hobe esanda, guztiok baikara prozesu horretan protagonista.

Erreferentziak


Hausnarketa hau Gasteizko Alde Zaharreko auzokideen elaborazio kolektiboaren espresioa da.

Komunitatearekin lotura lantzeko adierazleak

1. HEZITZAILEA	BAI	EZ
Auzoko baliabideak ezagutzen ditut (Hala Bedi, Saregune, frontoia, musika eskola...) eta talde dinamikarako erabiltzen ditut.		
Taldetik haratago doazen ekimenak elkarlanean antolatzen ditugu (adinduekin...).		
2. TALDE-INTERAKZIOA	BAI	EZ
Taldeetan auzo errealitateaz edo arazoetaz hitz egiten da.		
Taldean auzoa hobetzeko proposamenak egiten ditugu eta gure ideiak konpartitzen ditugu.		
Guztion ongizatea eta elkartasuna taldeetan lantzen dugu.		
3. JOLASAK EDO ARIKETAK	BAI	EZ
Beste taldeekin auzo mailako ekimenen batean parte hartzen dugu.		
Komunitate lan zehatzak egiten ditugu: kartealeo, portaleo...		
5. IRUDIA	BAI	EZ
Auzoko irudi positiboa zabaltzen dugu.		
Auzoko errealitate anitza isladatzen dugu.		
6. TEKNOLOGIA	BAI	EZ
IKTen bitartez, talde guztiek haien berri ematen diote auzoari.		
IKTen bitartez talde guztiek auzoa ezagutzeko ariketa bat egiten dute.		
Komunitate jarduerak sare sozialen bitartez zabaltzen ditugu.		
7. TOKIA BALIABIDEAK	BAI	EZ
Auzo mailako baliabideak lehenesten ditugu.		
Auzoan dauden baliabide eta espazioetan ardurak hartzen ditugu.		
Beste elkarte edo baliabide batzuekin batera proiektuak elkar lanean egiten ditugu.		
8. ERREFERENTZIAK	BAI	EZ
Auzo mailako herri mugimenduekin elkarlana egiten dugu		
Elkartetik kanpoko pertsonak bilatzen ditugunean jardunaldi edota irakaspenetarako... auzokideak lehenesten ditugu.		



ELKARLAN.EAN



EHKOLEKTIBOA ELKARTEA
Euskal Herriko laborari eta herritar
agroekologikoen kolektiboa

weborria:

ehkolektiboa.eus

sare sozialak:

twitter.com/EHKOLEktiboa

twitter.com/baserrikouzta

instagram.com/baserrikouzta

ELKARLAN.EAN - AURKIBIDEA

1. LABURPENA	33
2. SARHITZA	33
3. AGROEKOLOGIA, POSITIBOKI BEREIZTEAREN garrantzia	34
3.1. Balio publiko eta soziala	34
3.2. Ahalduntzea	35
3.3. Berrikuntza	36
3.4. Transferigarritasun ahalera	37
3.5. Genero ikuspegia	38
4. EHKolektiboa ELKARTEA	40
5. EHKOren IBILBIDEA	42
6. LAN ILDOAK eta JARDUERAK	43
6.1. LAN-TALDEAK	43
6.2. BASERRIKO UZTA	46
6.3. BIZIAREN AHOTSAK	48
6.4. AGROEKOLOGIA EROSKETA EREDUAK	49
6.5. IDENTIFIKAZIOA	51
6.6. ELKARLAN SAREA	55
6.7. IKERKETAK + ELKARLANAK	56
6.8. KOMUNIKAZIOA	60
7. ITXIERA	63
8. ERANSKINAK:	65
8.1. Kontzeptu gakoaren definizioa:	65
1. Agroekologia	65
2. Elikadura Burujabetza	65
3. Berme Sistema Parte-hartzailea	66
8.2. Baserriko Uztaren saioak eta loturak	67
8.3. EHKO ETXALDEEN MAPA	68

1. LABURPENA

EHKOlektiboa –edo EHKO– **gara Euskal Herrian Agroekologia lantzen eta bultzatzen duen baserritar eta herritarren kolektiboa**. Gure baserrietatik, eta jendartearekin batera –ELKARREKIN–, guztiontzako elikadura osasuntsua –BALIO PUBLIKOA– eta eskuragarria egitea dugu helburu; lurra, abere eta pertsona guztien errespetuan oinarriturik. Memoria honetan Agroekologia garatzeko egiten dugun lana aurkezten saiatu gara. Izan ere, uste dugu ELKARLAN sariekin bultzatu nahi diren baloreak, EHKOlektiboan modu transbertsalean lantzen ditugula gure jardunean.

Eskerrik asko txosten hau irakurri eta gure proiektua gogoan hartzeagatik.

2. SARHITZA

Azken hamarkadetako elikadura ekoizpena mundu mailako industriarik boteretsuenetako bat bihurtu da; ingurumena eta Ama Lurrari sor zaizkion ardura eta errespetuari erreparatzen ez dion industria, alegia. Laborantza eredu biziki kutsakorra bultzatu dute gobernuek, eta emaitzak ez dira politak izaten ari: lur agortua, berotegi efektua, kimikoz beteriko urak, familia etxalde ia akabatuak, osasun publikoaren okertzea, etab.... Panorama honen aurrean aterabide konkretu bat jalgitzen ari da azken hamarkada hauetan laborantzaren sabeletik: Agroekologia.

Kontzeptuak berrikuntza eta betiko jakinduria uztartzen ditu, eta ekologia laborantzaren erdigunean kokatzen du.

2018ko apirilean Erroman egin zen mundu mailako bigarren topaketan 70 herrialdek parte hartu zuten, elikadura sistema osasuntsu eta jasangarriak sortzeko gakoan inguruan hausnartzeko. Bertan, José Graziano da Silva Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundeko (FAO) Zuzendari Orokorrak adierazi zuen Agroekologiaren bidez planeta osoa elikatu ahal dela; eta gobernu, erakunde eta eragileak deitu zituen "Agroekologian oinarritzen diren nekazaritza eta elikadura sistemen alde pausoak ematera". Pixkanaka, unibertsitate, zentro teknologiko eta erakunde handiek Agroekologiaren eredia jarri dute jomuga (FAO, IFOAM). Hala ere, kontuan hartu behar dugu, nekazari txikiek betidanik jorratu duten bidea izen dela.

Baina zeri buruz ari gara Agroekologiaz ari garenean? Zein ikuspegitatik hitz egiten da Agroekologiaz? Agroekologiaren garapenerako, ikerketa eta esperimentazioa beharbeharrezkoak diren arren, ezin dugu ahaztu oinarria laborari txikien etxaldeetan aurkitze dela.

Horrek esan nahi du Agroekologiaren eredia baserritarren –eta herritarren– egunerako lanean landu beharra dagoela, beti ere, lurralde bakoitzaren ezaugarrietan oinarrituta. Tokiko kultura eta jakintzaren bitartez, eta nola ez, modu kolektiboan hausnartuz, partekatuz, eraberrituz, ikasiz, eraldatuz... Ildo horretatik, Agroekologiaren alde teorikotik haratago, prozesuak sortzea behar-beharrezkoa da: konfiantzan eta elkarrekiko babesean oinarritutako harremanak, bai herritar zein baserritarren artean, eta baita elkarren arteko zubiak eraikiz ere.

Euskal Herrian, EHKOk jarri ditu Agroekologiaren inguruko gogoetak mahai gainean, izan ere bertako bio nekazaritza baserritarra identifikatzeko behar batetik jaiotako elkarteak da, orain hamar urte. EHKolektiboa, egungo merkatuen garapenaren aurrean, bai eta mundu mailan ekoizpen ekologiko industrialak izaten ari den bilakaeraren aurrean, irizpide Agroekologikoak

jarraitzen dituzten bertako laborarien identifikazio bidea da. Mugimendu sozial baten izaera ere hartu du EHKolektiboak, eta gaur egun Agroekologiaren saiakeran dauden laborarien beharrei erantzuteko hainbat baliabide lortzen saiatzen da, Agroekologiaren garapen teorikotik (ikerketak, formazioak, hausnarketak), eguneroko maila praktikora (lan-taldeak, emanaldiak, topaketak), hau da, etxaldeetara.

3. AGROEKOLOGIA, POSITIBOKI BEREIZTEAREN garrantzia

EHKolektiboan parte hartzen dugun baserritar zein herritar ugari hitz egin dezakegu sarearenibilbideari buruz, izan ere Agroekologiaren mugimendu bezala, edonork parte hartu lezake, etabere aukera eta gogoen arabera ekarpenak egin. ELKARLAN deialdi honetarako, gure sareko bost eragileri eskatu diegu, gai hauen inguruan hausnartu eta EHKolektiboa nola ikusten duten plazaratzeko. Bakoitzak bere alorretik bada ere, balore guzti hauek zaindu eta modu transbertsalean lantzen ahalegintzen gara.

- **3.1 Valores público y Social de EHKolektiboa**

Mirene Begiristain

EHU- Ekonomiako Fakultateko irakasle eta

Elikadura Sistemak eta Agroekologiako gaietan ikerlari.

EHKolektiboko kidea.

EHKolektiboa es una organización capaz de indagar y profundizar en los procesos de innovación social que están surgiendo en el marco de lo que se conoce como redes alimentarias alternativas agroecológicas y la relocalización alimentaria agroecológica. En concreto, trata de comprender y sistematizar los mecanismos a través de los cuales, en estos

contextos, se está construyendo la confianza y la garantía en torno a los alimentos que se intercambian, que amplían los horizontes de la certificación ecológica por tercera parte recogida en el Reglamento Europeo para la producción ecológica (R CE 834/2007).

Las organizaciones como EHKolektiboa son denominados en la literatura científica como **Sistemas Participativos de Garantía** (Cuellar-Padilla, 2011; Torremocha, 2012) (en euskera

Berme Sistema Parte-Hartzaileak) y se refieren a "sistemas de garantía locales que certifican a productores ecológicos basándose en la activa participación de diferentes agentes y contruidos sobre la base de la confianza, las redes sociales locales y el intercambio de conocimientos".

Los SPGs como EHKolektiboa ponen especial énfasis en la construcción de relaciones de confianza y transparencia entre los diferentes actores implicados en la cadena y, especialmente, entre las personas productoras y consumidoras. Estas redes alimentarias alternativas "permiten al consumidor realizar nuevos juicios de valor más allá del

producto, sobre la conveniencia relativa de su consumo en base a su propio conocimiento, experiencia, o imágenes de calidad percibidas” (Marsden et al., 2000). Por tanto, el “acortamiento” del canal o la aproximación geográfica entre producción y consumo no es únicamente una cuestión de distancia física o de número de agentes que intervienen, sino fundamentalmente de valores compartidos y de confianza que se construyen en torno a la calidad regional y/o sostenibilidad ambiental, así como los términos organizativos y culturales que se establecen en los intercambios.

Así, los SPGs en general, y EHKOlektiboa en particular, se alinea con los objetivos que se plantearon en el programa marco europeo **Horizonte 2020**, y especialmente vinculándose a dos objetivos: 1) Seguridad alimentaria, agricultura y silvicultura sostenibles y 2) Alimentación: Sector agroalimentario competitivo y sostenible para una dieta sana y segura.

Con ello, EHKOlektiboa contribuye a incrementar el poder de las zonas rurales y la innovación social a través de su actividad con el acercamiento rural-urbano y unos procesos de articulación social que empoderan a las personas agricultoras, mejorando su calidad de vida, por una parte generando una red de apoyo mutuo entre profesionales agrarias (lo que redundaría beneficiosamente en hacer más atractiva la actividad facilitando el relevo generacional), y por la otra creando una base social de ciudadanas que apoyan a las personas productoras. Asimismo, los SPGs como EHKOlektiboa contribuyen a incrementar las opciones de socialización de la realidad agronómica y medioambiental. Además, incide en los valores sociales atendiendo el ámbito de la confianza por parte de las personas consumidoras, a generar innovaciones sociales que incorporan todos los eslabones del sistema alimentario desde la producción bajo criterios de ecología y proximidad, hasta este consumo, pasando por mecanismos de distribución e intercambio basados en la proximidad y el anclaje en lo local. De hecho, diversos estudios señalan cómo los sistemas alimentarios basados en circuitos agroecológicos, de proximidad y temporada, favorecen dietas más saludables, lo que se traduce, también en este caso, en un muy positivo valor público y social.

- **3.2 EHKOlektiboa baseritarron ahalduntze prozesuaren bidelaguna eta motorra**

Pikunietako artzaiak, Antzolan, 2019ko azaroa.
EHKO etxaldea.

Gure etxaldea EHKOlektiboaren partaidea da hasieratik. EHKOlektiboko kide izateko gogoak bi hanka ditu. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko zatorren kezka hura bera izatea: nekazaritza ekologikoa bioindustriak irentsiko ote zuen, nekazari txikiok eta munduaren gure ikuskera desagertu arte. Bestaldekik, gure bizi-filosofia, bizimodua eta lana partekatzen dituztenekin elkartzeko aukera izateak oso erakargarri egiten zuen EHKOlektiboa. Erakargarritasun hori oinarritzen zen aniztasunean –jardueretan, esperientzietan, ibilbidetan...– eta lurraldetasunean –Euskal Herri osoko laborariak baikaude–.

Bi hanka horiek aukera eman digute gure bizimoduaz hausnartzeko, baita gure lanbideaz ere. Izan ere, herri bakarra izan arren Euskal Herriak hiru administrazioen menpe izateak ezberdintasun handiak ezartzen ditu, nahiz eta laborarion egunerokotasuna eta lana berdintsuak izan. Egoera horrek irakaspen handia izan da guretzat zenbait arlotan. Horren adibideetako bat nekazari txiki eta ekologikoaren kontzientzia da: jendartean dugun berebiziko funtzioen jabe egin gara –gure herria ongi elikatzearen ardura dugu, lurra zaintzearena...– eta horiek aldarrikatzera pasa gara. Neurri berean eraman gaitu lehen irla multzoa zen horretan bizitzetik, artxipielagoa den komunitate batean bizitzera.

Elkarrekin aberastutako nekazari txiki eta ekologikoaren kontzientzia horrek bere ondorioak

izan ditu, eta bestelako pausuak emateko indarra eta babesa topatu ditugu EHKOlektiboan. Bi arlo azpimarratuko ditugu: formazioa eta jendarteratzea.

Formazioari dagokionez, lan-taldeetatik abiatuta, gai izan gara EHKOlektiboko abeltzainak beharrezkoak genituen ikastaroak antolatzeko, hiru urtetan jarraian. Elkartearen babesa ezinbestekoa izan da hori guztia aurrera eramateko, baina hori bezain garrantzitsua dira kideon inplikazioa eta lana. Argi dugu talde-lan hori gabe ezinezkoa litzatekeela heldu garen puntura heltzea: gaur egun abeltzain autonomoagoak gara gure animalien elikaduraren eta osasunaren zaintzan, tresna gehiago ditugu gure lanaren egunerokotasunean erabili ahal izateko; esperientzia trukaketa gertatu da hiru urteotan egindako formazioetan, eta egun osatuta dugu sare bat elkarri laguntzeko osasun edo bestelako arazoak sortuz gero gure tropetan, urtez urtez handitzen den sarea.

Eredu agroekologikoaren oinarriak –ekologikoa, gertukoa, giza neurriko etxaldeak eta ekonomia sozial eta eraldatzailea– jendarteratzea EHKOlektiboaren helburuetako bat izan da bere sorreratik, eta lehen aipatzen genuen artxipielago horren eraketan oso lagungarria izan da Baserriko Uzta izeneko ekimena, bertan kultur-sortzaileak eta laborariok elkarrekin egiten dugu lan, herritarrek ere parte hartzen dute –laguntzaile edo bisitari–. Kulturak, elikadurak eta herriak bat egiten dute. Baserri batean gorpuzten da artxipielago zoragarri hori, urtaroro eta Euskal Herriko lurraldez lurralde, EHKOlektiboaren baitan.

EHKOlektiboa etxalde honen eta beste askoren babesa da; jendartea hobetzeko bide horretan, bidelaguna eta motorra.

-
- **3.3 Berrikuntza, EHKOlektiboko motorea**

Beñat Irasuegi, Talaios koopertibako kidea.
EHKOlektiboko kidea.

Berrikuntza teknologiarekin lotzen da gaur egungo jendartean, teknologia digitalekin zehazkiago, gure ingurunea hobetzeko aukerak asko murrizten dituen ikuspegiarekin. Honi aurre egiteko, eta garapenerako aukerak zabaltzeko, beharrezkoa da berrikuntza egiteko eta pentsatzeko eremua zabaltzea.

EHKOlektiboaren oinarrietako bat da berrikuntza, eta kolektiboaren eta lantzen diren proiektuen izaera berritzailea. Nekazaritzan, landa eremuan eta Euskal Herrian orokortuak diren harremantzeko eta ekoizpenerako ereduak ez dute laborarien eta herritarren bizitza hobetzen, ez dute lurraren eta ingurumenaren biziraupena bermatzen, hori dela eta beharrezkoa da eredu berritzea, harreman ekonomiko eta sozialak, eta elikagaiak ekoizteko ereduak berritzea, prozesu eta egiteko moduen berrikuntza bidez, bide eraldatzailea egitea.

Beraz, horrela gauzatzen da berrikuntza EHKOlektiboan: Laborari eta abeltzainen arteko elkarlan harremanak sortu eta lantzen ditugu, elkarrekin irisgarritasun handiagoko proiektuak garatzeko aukerarekin. Ekoizle eta herritarren arteko harreman eta konpromisoak lotzen ditugu, konfidantzan oinarritutako bermeak eskainiz. Harremanak lotzen ditugu kultura eta elikaduraren bitartez, ekimen kulturalak etxaldeetan antolatuz. Ekoizpen prozesu berritzaileak garatzen ditugu sektoreka, ezagutza tradizional eta kolektiboa guztion eskura jarri eta abiapuntu horretatik garatuz. Komunitatea indartzeko, eta prozesuak hobetzeko teknologia askeen garapenaren alde egiten dugu, ahalduz bitartez teknologia digitala beharrei erantzuteko txertatuz ekoizpen eta komunikazio harremanetan. Elikadura sistemak sustatzen ditugu, lurraldeari atxikita, eta sisteman parte hartzen duten eragile eta kolektibo ezberdinen arteko elkarlana erdigunean jarritz. Bizitzak eta lurraldeak erdigunean jartzen dituzten garapen sozioekonomikoa bultzatzen dugu gure bazkideak presente dauden eremuetan. Agroekologiaren diskurtsoa berritzen dugu, lurraldeko beste eragile eraldatzaileekin epe luzeko harremanak lotuz.

Berrikuntza gure ikuspegian dugu txertatua, eta praktikara eramaten dugu modu integralean, arlo teknikoan, ekimen sozio-kulturaletan, diskurtsoan eta estrategian. Txikitaskun eta sare izaeratik ingurunea eta jendartea hobetu eta eraldatzeko modu eraginkorra delako. Bizitza bizigarriak izateko berrikuntza oinarritzkoa delako.

-
- **3.4 Transferigarritasun ahalera**

Aintzira Oñederra, Azpeitiako Azoka Plazako dinamizatzailea
EHKOlektiboko Talde Eragileko kidea.

EHKOaren jarduna transferigarritasunean oinarritzen da, hasi etxaldeetan sortzen eta birsortzen den jakintzatik eta beste antzeko esperientziekin saretu eta elkarbanatzeko egiten den ahalegineraino. Azken finean, EHKO Berme Sistema Parte-Hartzailean oinarritutako esperientzia bat da, hau da, hirugarren entitate batek ziurtatu eta zigilaturiko etxaldearen nortasunetik haratago, baserritarren arteko lankidetzak aktiboan oinarritutako sarea da, konfiantza partekatuz, jakintzaren elkartrukea bultzatzen duena. Beraz, hasi eskalarik txikienetik, baserritik, eta eskalarik handieneraino, estatu mailako zein nazioarteko beste Berme Sistema Parte-Hartzaileetan oinarritzen diren esperientziekiko harremanetaraino, transferigarritasuna da EHKOaren printzipiorik irmoenetakoa.

Agroekologian oinarritutako elikadura burujabetza bide duen sare sozial batek, mugimendua eta dinamika du eguneroko. Agroekologia ezinezkoa da zigilu ofizial batek eskatzen duen eskema hermetiko baten baitan definitzea, tokiko testuinguru sozial eta

politikoaren baitan aldatzen, birsortzen eta egokitzen baita. EHKOk barnebiltzen dituen lan talde desberdinak (hasi baratzezainen lantaldetik eta artzain edo zerealisten lan taldeetaraino) une oroko heziketa prozesuan murgildutako sareak dira. Aldaketa klimatikoaren harira, gaur egungo ezegonkortasun markoan, baserrien erresilientzia bermatzeko, ezinbesteko gakoa da etxalde bakoitzean espermentatutako praktiketatik abiatu eta hauek taldean transferitu eta partekatzea. EHKO baserri bakoitzeko jakintza anitzak ehuntzeko tresna pedagogikoa da, lan talde edo familia berdinetako baserritarrak elkarriketan jartzeaz gain, sektore desberdinen arteko zubiak eraiki eta diziplina bakoitzeko jakintzak gainditzeko gaitasuna duena.

Baina esan bezala, transferigarritasun ahalmen hau ez da EHKOren laborari taldeetara mugatzen. Agroekologiaren baitan, elikadura sare alternatiboetan herritarrak ere barnebiltzeko beharretik abiatuta, gizarteko norbanako zein eragile edo erakunde desberdinekin sozializatu eta artikulatuta mantentzeko joera nabarmena dago. Honez gain, EHKOk beste Berme Sistema Parte-Hartzaileak ere barne biltzen dituzten plataformetan bere lekua aurkitu du, eta eguneroko errealitatetik aldendu gabe, esperientzia praktikotik jasotako zenbait irakaspen partekatu eta beste inizatiba erreferenteetatik ikasteko

aukerak baliatu ditu. Aipatzekoa da, estatu mailan azken urteetan ospatutako lau topaketetan parte hartu izana, hasi 2015an Balentzian izandako topaketetatik eta aurten (2019an) berriz Granadan. Horrez gain, EHKOk 2020 urteko topaketak antolatzeko konpromisoa hartu du, sarearen heldutasun eta egonkortasun maila adierazten dituen ardura. Bestetik, Frantzia mailan ehuntzen ari den sarearen parte ere bada, CIRAD ikerketa zentroak eta Nature & Progrès Berme Sistema Parte-Hartzaileak koordinaturiko artikulazio prozesua. Plataforma hauek esperientzia, praktika eta jakintza desberdinak partekatzeko beharretik sortzen dira.

Beraz, balioan jartzekoa da azken urteetan EHKOk transferigarritasuna bermatzeko egin duen ahalegina, esperientziaren jasagarritasuna ziurtatzeko oinarrietako bat dela jakinik, hainbeste zaintzen duen printzipioa.

-
- **3.5 Generoaren lanketa EHKOLEktiboan**

Miren Sainz, Bizilur eta Etxaldeko Emakumeak taldeko kidea
EHKOLEktiboko kidea da BIZILUR.

Desde su inicio, Ehkolektiboa ha tenido la igualdad de género y el empoderamiento de las mujeres baserritarras como uno de sus objetivos. Las mujeres han sido históricamente las guardianas de los pequeños caseríos en Euskal Herria, haciéndose cargo de todo el trabajo reproductivo de las granjas, así como de muchas de las labores productivas que requerían de un trabajo minucioso y en la gran mayoría de casos invisibilizado.

Numerosas mujeres feministas han teorizado sobre el lugar que ocupan las mujeres en el desarrollo de la agricultura moderna y su rol e importancia de cara a una transición agroecológica. Para EHKOLEktiboa, donde el desarrollo teórico de la agroecología debe nutrirse día a día de nuevos y viejos referentes, son de gran referencia los escritos de

Vandana Shiva, Silvia Federichi y _Yayo Herrero entre muchas otras. Pero también las muchísimas baserritarras que día a día son parte de nuestro colectivo y que aportan de manera directa (participando) o indirecta (cuidando para que otrxs participen).

En EHKOlektiboa, se promueve la igualdad real en los diferentes espacios organizativos. Tanto en el Grupo Motor (Talde Eragilea) como en los grupos de trabajo, donde se busca la

participación de, como mínimo, 50% de mujeres. Esto es un reto en espacios vinculados a la agricultura y ganadería, ya que son espacios donde hay menos mujeres y que tradicionalmente, han sido invisibilizadas en los espacios de toma de decisiones. Para ello, se trabajan diferentes mecanismos: organizar reuniones en horarios y espacios que favorezcan la conciliación, utilizar dinamizaciones y mecanismos que permitan la participación igualitaria (medir tiempos y orden al hablar, cuidar los espacios físicos...). Por ejemplo, en el grupo de trabajo de pastoras del año 2017, el tema de trabajo principal fue "la mujer como pastora", y fue una experiencia real de empoderamiento para las mujeres que participaron en el encuentro el encontrarse en situaciones parecidas y compartir realidades de un sector muy masculinizado. Para los hombres, esta reunión fue también muy interesante, ya que respetaron una participación en segundo plano, cediendo la voz y el protagonismo a sus compañeras de trabajo.

Otro caso destacable en cuanto a la visibilización de los roles de género en la agroecología se recoge en la investigación sobre "Modelos de Consumo Agroecológico". En este informe se dedica un apartado específico a analizar el peso que a día de hoy siguen teniendo las mujeres en proveer de alimentos a las familias y que su mayor o menor grado de sensibilización en agroecología tiene relación directa con el modelo de consumo de las casas y la consiguiente participación en grupos de consumo. En este sentido se identifica como necesaria la sensibilización de toda la población para equilibrar los roles de cuidado y transitar hacia vidas más igualitarias donde el respeto por la naturaleza y la salud sean igual de importantes para todos y todas.

Ya desde sus comienzos EHKOlektiboa estableció alianzas con colectivos feministas como Emazteak Diote (Iparralde) y Etxaldeko Emakumeak (Bizkaia). En los últimos años se ha buscado fortalecer estas alianzas con colectivos feministas y ecofeministas para poder incorporar criterios específicos sobre perspectiva de género en el identificador EHKO. Para el año 2020 hemos previsto varias sesiones formativas que nos permitan seguir avanzando en la construcción de una agroecología con perspectiva de género.

1. EHKOLEktiboa elkarte

Euskal Herrian Agroekologia lantzen eta bultzatzen duen baserritar eta herritarren kolektiboa gara EHKOLEktiboa. Gure baserrietatik, eta jendartearekin batera, guztiontzako elikadura osasuntsua eta eskuragarria egitea dugu helburu; lurra, abere eta pertsonaguztien errespetuan oinarriturik. Agroekologiaren lanketa teoriko, eta batez ere praktikoa, bultzatzen dugu; herrigintzaren ikuspegitik eta elkarlanetik, gure etxaldea guztion artean Agroekologiaren bidean aurrera joateko.

1. Helburuak:

- AGROEKOLOGIA : kontzeptu zabal hori definitu eta garatu, gure lurraldea eta jendartearen kontutan izanik
- IDENTIFIKAZIOA : identifikatzeko erreminta martxan jartzea; alde batetik, herritarrek ezagutzeko eta, bestaldetik, merkatu handien dinamiketarik positiboki bereizteko
- ELKARTASUNA : hainbat lurralderen arteko harremanak sustatu

2. Bazkideak

Gaur egun 220 kidez osaturik dago elkarte. Horietatik 125 laborariak dira, 67 herritarrek eta 8 elkarte. Norbanakoek urteko 30€ko ekarpena egiten diote elkarteari. Elkarteek eta erakundeek, ordea, 100 €.

3. Batzar orokorra eta topaketak

Urteko lehen [hiruhilekoan biltzen da](#) EHKOLEktiboko batzar orokorra, bilera ofiziala egin eta kolektiboa osatzen duten kideen arteko topagune izateko helburuarekin. Urtero, Euskal Herriko lurralde ezberdin batean egiten da, tokiko laborariei bertaratzeko erreztasunak txandatzeko. Landa gunen eta herri txikietan lehenesten dira topaketak egiteko orduan.

4. Talde eragilea edo Junta:

2019ko Batzar Orokorrean Onartua:

- 7 kidez osaturik dago. Gehiengoak kide-laborariak osatzen dute.
- 4 emakume eta 3 gizonezkoak osatzen dute
- Josebe Blanco artzaiak lehendakaritza lanak hartu ditu datozen urteetarako.

5. Elkarrearen dinamizazioa:

Elkarreak, eguneroko administrazio lan, kudeaketa eta ekintzen dinamizaziorako langile bat du kontratatua lanaldi osoan.

6. Komunikazioa


Euskal Herri osoko lotura zubia egiteko, EHKOlektiboko barne eta kanpo komunikazioak hiru hizkuntzetan egiteko erronka dugu: euskara, gaztelania eta frantsesa.

Barne dinamika, lan-talde eta topaketetan hizkuntz aniztasuna errespetatu eta ulermena errazteko itzulpen lanak egiten dira beti, euskara ardatza izanda

7. Finantziak

Elkartearen oinarrian bazkide kuotak daude. Azken urteotan EHKOlektiboak ez du finantziak iturri egonkorrik izan eta elkarlan eta proiektuak bultzatu dira honako erakunde eta eragileekin:

- Eusko Jaurlaritza-Hazi Fundazioa
- Udalbiltza
- Euskal Hiriguneen Elkargoa
- INTIA
- CPAEN-NNPEK
- ENEEK
- Gipuzkoako Foru Aldundia



Igandea
2019ko Martxoak 3
10:00etan



Itsasondoko Udala,
Nagusia kalea 24
20249 Gipuzkoa

www.ehkolektiboa.eus
ehkolektiboa@gmail.com
0034 688 86 70 20



5. EHKOLEktiboaren IBILBIDEA

2007-2008 urteetan, Euskal Herriko hainbat laborari ekoizpen ekologikoaren etorkizunaren inguruan hausnartzen hasi ziren: “betiko” nekazaritza ekologiko txikia bio-industriak irentsiko ote zuen (iraultza berdeak egin zuen antzera gure lurraldeko nekazari txikiarekin) lurraldeak nekazaritza ulertzeko modua desagertu arte. Lehen elkarriketa horiek, 2012an mugaz gaindiko POCTEFA1 proiektu bat martxan jartzea ekarri zuten. Iparraldeko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako nekazari ekologikoak bateratu zituen Agroekologiaren hausnarketa kolektiboa egitea helburu zuen zen proiektuan. Ekoizpen arloko topaketa sektorialak (partehartze saioak) eta EH mailako topaketa ugari antolatu ziren Agroekologia nola ulertzen zen eta nola garatu ahal zen irudikatu eta sistematizatzeko helburuarekin.

POCTEFA garaian (2012 uztaila – 2013 abendua), 220 pertsonak parte hartu zuten (500 gonbidapen inguru bidali zirelarik) EHKOLEktiboaren orientazioa eta helburuak finkatu ziren. Hauek izan ziren proiektu horren ondorio nagusiak:

- Euskal Herri mailako egitura baten hutsunea dago.
- Gure etxe hurbiletik haratagoko baserritarrek biltzea oso positiboa. (Geure buruak hobetzeko, taldean egite moldeak partekatu).
- Identifikazio tresna bat beharrezkoa da.
- Instalatzera doan jendearentzat oso lagungarri: lan ildoak eta etorkizuneko erronkak zeintzuk diren aldez aurretik jakitea.
- Herritarren parte hartzea beharrezkoa dugula. Herritarrekin ere EHKOren baloreak landu behar dira.

Prozesu horren ondorioz sortu zen 2014ean elkarte ofizial gisa EHKOLEktiboa. 2014ko martxoaren 24ean EHKOLEKTIBOA elkarte ofiziala bilakatzen da, Frantziako elkartearen erregistroan. Hurrengo bi urteetan kolektiboaren lan nagusia izan zen EHKO identifikatzailea eratu eta martxan jartzea eta etxalde sarea jostea.

2016 bukaeran EAEko erakundeekin harremanak normalizatzeko, elkartearen hegoaldean inskribatzea erabaki zen, horrela gaur egun EAEko irabazi asmorik gabeko elkartearen da EHKOLEktiboa.

1 POCTEFA gaztelarazko **Programa INTERREG V-A España-Francia-Andorra** akronimoa da. Europako lurraldekooperazio programa bat da, hiru herrialde horien arteko mugetako lurraldeetan garapen iraunkorreko proiektuak bultzatzeko sortua.

6. LAN ILDOAK eta JARDUERAK

6.1 LAN-TALDEAK: trukaketa eta elkar-jakintzatik Agroekologiaren garatzen

EHKOlektiboa laborariek bultzatutako mugimendua izanik, Agroekologiaren bidean pausoak ematen jarraitzeko jakintza eta esperientziak partekatzea ezinbestekoa dugu. Horregatik, ekoizpen arloko **lan-taldeetan antolatzen dira EHKOn laborariak** (2018tik aurrera herritarrek ere) eta urtero elkartzen dira gai konkretu batzuen inguruan hausnartzeko, formazio bidez teknikak hobetzeko edota proiektu zehatzak martxan jartzeko. Euskal Herri osoko pertsonak elkartzen direnean **laborarien arteko elkartasun indarrak lotzen dira; lan kolektibo batean parte hartzeak ematen duen babesari esker.**

2019an 8 lan-talde elkartuko dira (sendabelar eta esne-behien lantaldea hilaren amaieran elkartuko dira):

10:30tan

LARRATEKO, LANTARON (ARABA)

IRAILAren 11an

egitaraua

- Euskal Herriko Haizen Sareko mintegira bisita
- Lurra nola ongarritu
- EHKO zuhaitzaren errepasoa

Elkarrekin bazkalduko dugu!

laguntzaileak

hazi

info gehiago

www.ehkolektiboa.eus
ehkolektiboa@gmail.com
 +34 688 867 020

MARTXOAK 21ean ZALDIBIAN ERLEZAINAK	EKAINAren 22an ZIORDIAN HERRITARRAK	IRAILAren 19an BIEZKO BASERRIA AXPE (BIZKAIA) BARATZAINAK	IRAILAren 11ean LARRATEKO LANTARON (ARABA) FRUTAZAINAK
Urriaren 19an MAEZTUN (ARABA) OKIN-ZEREALISTAK	URRIAren 3an ABADIÑON (BIZKAIA) ARTZAINAK	AZAROaren 26an ARBONAN (LAPURDI) SENDABELARGILEAK	AZAROaren 28an IPARRALDEAN ESNE-BEHIZALEAK

laguntzaileak

hazi

info gehiago

www.ehkolektiboa.eus
ehkolektiboa@gmail.com
 +34 688 867 020

Irudiak: 2019ko LAN-TALDEEN egutegia eta frutazainen deialdiko kartela

Lantalde dinamikak erdigunean jartzen ditu laborariak: euren etxalde eta ekoizpenen garapena da helburu nagusia. Erabiltzen den metodologia CaC (Campesino a Campesino) bezala sistematizatu izan da, batez ere Hego-Amerikan, eta funtsean hezkuntza herrikoian eta informazio eta jakintza transferentzia horizontalean oinarritzen da –konfiantzan eta elkarlanean–. Hots, hartu-emanak sustatzean datza. Esperientzian oinarritzen den heinean, kasu praktiko eta konkretuak lantzen dira, errealitatea aztertu eta etengabe garatu, berritu edo hobetzeko.



Bilera hauek sektoreak bizi dituen gabezia handienak identifikatu eta elkarrekin konpontzeko motibatzen dituzte laborariak. Egoeraren jabe egiten dira, sistemaren konplexutasunaz eta, azken finean, beraien ekoizpenaren, etxaldearen eta sektorearen etorkizunaren burujabe egiten dira Agroekologiaren bidean agente klabe eta protagonista bilakatuz. Lantalde hauek sektorea pizteko balio dute, eta ekoizleak EHKOlektibotik haratago antolatzen hasteko. Ekoizleen ahalduntzea trantsizio agroekologikoa eta elikadura sistema alternatiboen bidea sostengatzeko prozesurik garrantzitsuenetakoa bilakatzen da.

Adibidez, artzainek 2017an egin zuten bileran, emakumeek etxaldeetan, animalien hazkuntzan eta orokorrean proiektu agroekologikoetan duten tokiaz eztabaidatu zen; frutazainen bileraren kasuan, ikusi zen bazegoela behar bat, banaketak egiteko garaian elkarri laguntzeko. Zitugileen pasa den urteotako trukaketa esperientzia positiboek, Nafarroa eta Arabako laborariak bertako eskaerari erantzuteko –okin eta abeltzain ekologikoak hornitzeko– antolatzen ari dira, antzinako barietateen lanketa eta eskari eskaintza taulen bidez. Esne-behi lantaldeak etxaldearen autonomiaren aldeko aurrerapausoak bultzatu nahian, Iparraldeko teknikak –aromaterapia bidezko tratamenduak– hegoaldeko abeltzainei erakusteko beharra zegoela ohartu ziren, eta geroztik formazioak bultzatu dituzte. EHKOlektiboak babesak eta bultzada ematen die ekoizle guzti horiei, beharrezkoak dituzten tresna eta baliabideak bideratzen lagunduz.

Lan-talde bileretatik formakuntzara

2017an behi-esne lantaldeak identifikatu zuen formazio beharrak beste ate bat ireki du EHKOlektiboan. Nekazarietako bestelako formazio tekniko baten beharra. Soka horretatik tiraka antolatu zen 2017an BLE elkartarekin batera Sendabelar eta Olio Esentzialen formazioa animalientzat eta Bionekazaritza elkartarekin Ongarri berdeen formazioa baratzezaintza eta zerealgileentzako. Ikastaro horiek oso aberasgarriak izan ziren eta abeltzainen kasuan formazio iraunkorraren beharra agertu zen eta ondorioz 2018an gai horretan sakontzeko bigarren saio bat antolatu zen eta baita European ezagunagoa den Obsalim Metodoaren inguruan (esteka artikulua).

2019rako formazio hauei jarraipena eman zaie HAZI Fundazioaren laguntzaz, EHKOlektiboan ez dauden laborariei ere teknika hauetan formatzeko aukerak eman ahal izateko. Orain arte egin diren saioak oso arrakastatsuak izan dira. Abeltzainen motibazioak beste lan-talde batzuetara iritsi dira eta Okinek antzinako gari barietatearekin lan-egiteko formazio bat antolatu dute 2019ko udazkenean Maeztun. Sendabelar ekoizle eta aurrutzgileak ere hasi dira pentsatzen 2020ean ekoizpen hauek ugaritu eta hobetzeko beste eragile eta erakundeekin lanean sortu ditzakegun formazio proposamenetan.



Irudiak: okin eta abeltzainen formazioak, 2019

6.2 BASERRIKO UZTA: etxaldeak eta kultura batzen



Baserria, laborantza ekologikoa eta musika uztartzen dituen ekimena da BASERRIKO UZTA. Urtaro bakoitzean, baserri baten ateak eta musikari baten doinu kutxa zabaltzen dugu. Hala, bien bizibidea, nola, egunerokoa ezagutzeaz gain, beraien uztaz gozatzeko.

Urtaro bakoitzeko zuzeneko bat, herrialde ezberdinetako baserri banatan. Horixe da 2017an sortu genuen ekimen berritzailearen funtsa. 2017 ko udazkenekoa izan zen jasotzen lehen uzta, oparoa oso, Antzuolako Pikunietan eta Anariren parte hartzearekin, Gipuzkoan. Eta geroztik Euskal Herriko txoko ugari bisitatu ditugu: Orduña, Arbona, Oibar, Anuzita, Pagola eta Eibar. Lurraldetasuna, ekoizpen arloaren txandaketak eta musikarien estilo eta generoaren aniztasuna balore garrantzitsuak dira ekimena osatzeko.

Etxaldeetako ateak parez-pare irekiz laborantza ekologikoa eta euskal musika bezalako bi bazterreko diziplina ezagutzera eman nahi ditu Baserriko Uztak. Ekimaren **aurkezpenean** horrela azaldu zuen EHKOlektiboko kide den Josebe Blancok: "Baserritarrok lan polita egiten dugun arren ez dauka jendartean oihartzunik", eta egoera irauli asmoz sortu zen Baserriko Uzta ekimen berritzailea. "Hurbiletik, hurbiltasuna baitugu ardatzetako bat kolektiboan. Eta noski, formatuak elkar ezagutzeko eta solaserako tarte ematea espero dugu".



Baserriko Uzta **ez da baserrietan kontzertuak eskaintzera mugatzen**. Hitzordua goizeko 10.30etarako jarri ohi da, etxaldea bisitatu eta nekazarien egunerokoa, ogibidea eta ekoizten dituzten elikagaiak gertutikezagutzen dira. Bisitaren eta hamaiketakoaren ostean, musika emanaldia egiten da, horretarako etxaldea egokien ikusten duen espazioan, beti ere eguraldia eta pertsona kopurua kontuan hartuta. Eta azkenik, bisitaldia borobiltzeko, bertaratutakoen arteko bazkaria egin ohi da, EHKO kideen baserrietako elikagaiekin, jakina.

Ekimen honetan komunikazioak leku berezia du, musikariak sortzen duen ikusmira baliatzen delako Agroekologiaren balioak herritarrengana helarazteko. Hori aurretik hedabide ezberdinak lotzen lantzen da idatzizko eta irratiko elkarrizketak eginez eta ondorengo ikus-entzunezko eta idatzizko kronikaren bidez. 2017 eta 2018ko Uztak ZUZEU oinkarian jaso ziren eta 2019koak berriz ARGIAN. Ikusentzunezko bideoa eguneko irudiekin zuzenean grabatutako abesti baten gainean egiten da. Modu honetan pertsona ugari ekimenaren oihartzuna jasotzen dute eta partaideei egunaren memoria bezala ikusteko erabiltzen dugu.

Laguntzaile bolondresen artean dagoen giro goxoak, eta laborari eta herritarren artean ematen diren elkarrizketak erakutsi digute oso formula ona dela hiri eta herri, ekoizle eta erosleen arteko distantziak murrizteko.

Adibide bat pentsatzen azken Baserriko Uzta datorkigu gogora. Berezia izan Sosola baserrian Eibarren jaso genuen Udazkeneko saioa. Ikus-entzunezko bideoak laburbiltzen du ederki ekimena eta bertan bizi den giroa, <https://youtu.be/GfPMRNUiqm0>. Bi asteetan 1.100 ikustaldi izan ditu bideoak.



Ruper Ordorika | 'Martin Larralde' feat. Maialen Araolaza eta Quique Puges #BaserrikoUzta

6.3 EHKOlektiboa bertsotan: Biziaren ahotsak

EHKOlektiboak ekimen berri bat abiatu du 2019an, BIZIAREN AHOTSAK, EHKOlektiboa bertsotan izenpean. Proiektu honekin bizitzaren bi oinarrietara jo nahi izan du EHKOk: elikadura eta ahotsa.

Ekimenaren helburua EHKOlektiboa ezagutzera ematea izan da, eta Agroekologiaren alde egiten duen lana gertuagotik ezagutzea. Bizitzaren oinarriak diren elikadura eta ahotsa batuz, bizitzaren esentziara hurbiltzea izan da ekimenaren beste helburua; honen bitartez baserriar eta bertsolarien lanaren garrantzia azpimarratzeko.

EHKOlektiboak antolatzen duen Baserriko Uzta ekimenaren ildotik, etxaldera bisita eta bazkari agroekologikoa izan da ekimenaren erdigunea, eta horretarako euskal sortzaileen lana izan da egunaren eroalea. Txapeldunak izan diren bi bertsolarik parte hartzea ohorea izen zen EHKOlektiboarentzat.

Baserriko Uzta ekimenean bezala, lankomunikatiboak garrantzi handia du eta indarra jartzen da alde-aurreko eta ondorengo bidea egiten. BIZIAREN AHOTSAK hedabide ezberdinetan presentzia izan du. Idatziz Gipuzkoako Hitzan, Gaienon eta Argian jaso genuen honen berri, eta irratian EITBko Faktoria eta Landaberri saioetan. Gaina ETBko Hitzetik Hortzera bertsolaritza programan emanaldiaren bertso batzuk jarri zituzten eta saio gehienak bertsoa.eus atarian daude ikusgai.



Egunaren memoria idatzizko kronika baten jaso da www.ehkolektiboa.eus atarian:

- <https://ehkolektiboa.eus/2019/10/25/kronika-bizitzaren-ahotsa-bizi-eta-ozenpbikunieta-baserrian/>


Ikus-entzunezko kronika laster plazaratuko dugu.

6.4 AGROEKOLOGIA EROSKETA EREDUAK: Euskal Herriko kontsumo talde, elkarte eta kooperatiben saretzea

XX. mendean, supermerkatuen arrakasta handitzearekin batera, gaur egungo kontsumitzeko ohitura nagusi izatera iritsi da. Duela urte batzuk, produktu ekologikoek beren lekua topatu zuten merkatuan, eta, orain, supermerkatuen apalak hosto berdeztatzen dira, freskoak, transformatuak eta antzeko eskaintza aberatsekin. Hala ere, produktu horien ekoizpenaren atzean laborantza ekologiko industrialia suma genezake (etxalde alimalekoak, monolaborantzak, lan-baldintza txarrak, urrunekoak, hainbat araudi...); azken finean, Euskal Herrirako nahi dugun burujabetza eta lurralde-garapenetik urruneko eredua.

Horren aurrean, bestelako aukera da EHKOlektiboa, Agroekologiaren bidean diren Euskal Herriko laborari eta herritarrek saretu nahi dituen elkarte. 2012-2014 bitartean egindako prozesu baten ondorioz sortu zen EHKO IDENTIFIKATZAILEA, laborariak kolektiboan definitutako irizpide agroekologikoetan oinarrituriko berme-sistema parte-hartzailea. Azken urteotan identifikatzailearen ibilbidea herritarren prozesuetatik urrun gelditzen ari zela ohartuta, gerturatze-prozesua abian jarri da. Horretarako, 2018. urtean hasi zen Euskal **Herriko kontsumo talde, elkarte eta kooperatiba agroekologikoen** arteko harremana eta ekintza kolektiboa indartzeko prozesua. Ikerketa parte-hartzailea abiatu zen, merkaturatze-bide laburrei lotutako kontsumo-eredu antolatu gaur egun Euskal Herrian bizi duten egoera (dimentsio sozial eta ekonomikoa) ezagutzea helburu.



Ikerketan, Euskal Herrian ditugun merkaturatze-bide laburrak karakterizatu dira, bai eta kontsumo antolatuari lotutako ekimenen azterketa sakona egin ere, gaur egun martxan dauden kontsumo elkarte, talde eta kooperatibak ezagutzeko asmoz. Nahiz eta ezin izan ditugun jaso definitutako ekimena eta sare guztien inguruko datuak, bilaketa horretan eskuratu ditugun emaitzak oso aberasgarriak izan dira: 170 kontsumo-talde baino gehiago eta 16 kontsumitzaile-elkarte, guztira 14.000bat familia barnebiltzen dituztenak Euskal Herri osoan.



Azterketa horrek lagundu digu irudikatzen zein funtsezko irizpidek baldintzatzen duten ekoizpen ekologiko txikiaren eta herritar kontsumitzaileen arteko zuzeneko harremanean oinarritutako merkaturatze-eredu ugarien etorkizuna. Aldi berean, ekimenek elkar ezagutzeko bi topaketa aberasgarri egin dira, eta pozik ondoriozta dezakegu badela pixkanaka egituratzen ari den gogoia Agroekologian oinarritutako Euskal Herriko Elikadura Burujabetzaren bidean lanean jarraitzeko, herritarren erosketa-gaitasuna oinarri.

HAZI Fundazioarekin elkarlanean egin dugu ikerketa proiektu hau eta gure emaitzak publiko egin nahian bi baliabide argitaratu ditugu. Alde batetik ikerketaren gako nagusiak jasotzen dituen eskuorria (8 orrialde) eta ikerketaren memoria modu laburtuan jasotzen duen liburuxka (44 orrialde). Txosten hauek denak hiru hizkuntzetan argitaratu ditugu. Datozen hilabeteetan, ehkolektiboa.eus atarian eskuragarri jarriko dugu ikerketa eta elkarrizketatu ditugun eragileei banatuko zaizkie materialak.

IRUDIAK: AGROEKOLOGIA erosketa ereduen eskuorri eta liburuxka.



6.5 IDENTIFIKATZAILEA

Orain hamar urte, nekazaritza eta elikadura ekologikoaren ildoan lan egiten zuten Euskal Herriko laborari zein herritarrak ekoizpen mota desberdinen arabera antolatu, eta hausnartze prozesu batean murgildu ziren. Hausnarketaren ondorioek Euskal Herriko egitura baten beharra, inguruko baserritarrek elkartu eta partekatzeko interesa, identifikazio tresna baten premia eta, herritarren parte hartzearen garrantzia erakutsi zuten; funtsean bertako bionekazaritza baserritarra Euskal Herri mailan identifikatu eta babesteko beharra.

Egungo merkatuen garapenaren aurrean, bai eta mundu mailan elikadura ekologikoaren merkatua izaten ari den garapenaren aurrean, logika hauetatik desberdinduko zen tresna baten baten gogoeta piztu zuten. Zigilu komertzial baten alternatibismo gisa, identifikazioan


oinarrituko zen tresna, bestelako euskarri komunikatiboak eta pedagogikoak erabiliko zituen, eta kontrol mekanismoetatik haratago sare-sozial baten oinarri parte-hartzaile baten gainean eraikia.

Gure lurraldeetatik haratago horrelako sistemak erabiltzen dituzten beste proiektu batzuk ezagutu ziren, eta hauen funtzionamendua eta IFOAMek eskaintzen dituen tresnak erreferentzia hartuta, Euskal Herrian Agroekologiaren bidean dauden etxaldeak konfiantza sareetan oinarrituz eta jakintzaren elkartrukea eta kolektiboaren babesaren bitartez sortzea erabaki zen 2014ean. Berme Parte-hartzailean oinarriak jarraituz lan egitea aukera zen izan ere sistema hauek elikagai konkretuak ziurtatu ordez, ekoizpen proiektuak edo etxaldeen prozesuei erreparatzen die eta prozesuan inplikaturako eragileen lankidetzak aktiboan oinarritzen dira; hain zuzen ere EHKOLEKTIBOAREN balioak eta egiteekin guztiz bat datozen tresnak.




EHKOlektiboarentzat BSPa laborantza bio-ekologikoa, bertakoa, etxaldekoa eta herrikoa egiten duten Euskal Herriko bio baserriak identifikatzen eta desberdintzen dituen tresna da. EHKO Agroekologiaren identifikatzaile herrikoa- izena hartzen du. Identifikatzaile hori ez da produktuaren bermea ematen duen label bat, baizik eta etxaldeak identifikatzen ditu. Modu honetan, bi gauza bermatzen ditu prozesuak; alde batetik, lan kolektibo batean konprometitzea; eta bestetik, Europako araudi ekologikoari gehitutako arauak errespetatzea, sistema bio-industrialetik bereizteko eta baserritar/herritar harremana ziurtatzeko. Jendarteari Agroekologiaren praktikotasuna erakusteko tresna pedagogiko paregabea da, Agroekologia kontzeptua etxalde hauetan gorpuztu eta praktikotasunean ikusten baita.

EHKOlektiboaren BSPak Onarpen Komisio baten bidez funtzionatzen du, kolektiboak berak finkatutako oinarritzko Agroekologia irizpideak betetzen direla bermatzen duena. Onarpen Komisioko 5 kideek, Euskal Herriko lurraldetasuna ordezkatzan dute, eta aldi berean, ekoizpen zein kontsumo arlo ezberdinetako adituak dira. “Konpromiso agiri” baten bitartez etxaldeen, EHKOlektiboaren irizpideak betetzen dituztela eta kolektiboarekiko eskatzen diren konpromisoak hartzen dituztela sinatzen dute. “Konpromisoen agiria”, kolektiboak definitu zuen zuhaitzean oinarritzen den dokumentua da. Zuhaitza sinbolo hartuta, sustraletan konpromisoak jasotzen dira, enborrean oinarritzko baldintzak eta adarretan garapen bideak. Orotara, zazpi bat konpromiso eta hazkuntza, agronomia, salmenta eta alderdi sozialean oinarriturik dauden 15 bat baldintza jasotzen ditu dokumentu honek. Onarpen Komisiok, etxaldeen “Konpromiso agiriak” aztertzen ditu, eta konfiantzan oinarriturik, etxaldeen Agroekologiaren bidean hobekuntzak egiteko proposamenak egiten ditu.



Irudietan: EHKOlektiboaren materialak, konpromiso agiria, eta webguneko mapa interaktiboa

Gaur egun 73 etxaldez osatuta dago sarea, herritar eta gizartearen aurrean Agroekologiaren ispilua direnak. Sarea osatzen duten etxaldeen mapa osatu dugu, eskuorri fisiko bezala eta baita online erabili daitekeen tresna gisa (<https://herrigis.cdn.net/EHKOlektiboa/>).



Identifikatzailearen etorkizuna

Agroekologiaren ikuspuntutik gaur egungo nekazaritza sektorearen egoera ezin dugu etxaldearen begirada tekniko batetik soilik ulertu, sektorean eragiten duten bestelako alderdi sozial, kultural eta ekonomikoak kontuan hartzea ezinbestekoa da. Baina horiek dira neurtu eta baloratzeko irizpiderik zailenak. Gaur egun erabiltzen den Konpromiso Agiria dokumentuak, irizpide hauek jasotzen dituen arren, hauen inguruko berrikuste bat egin behar da, hainbat eztabaida berriro ere kolektiboki hausnartu eta ebazteko. Horretarako, etengabeko lanketa behar-beharrezkoa da, eta identifikatzailea tresna dinamikoa bilakatu behar da. Zeregin horretan, identifikazio-sistema harreman sozialetan oinarritutako sarea izan behar duenez jakitun, hainbat oztoporekin aurkitu gara.

Batetik, zailtasunak ageri dira herritarrek BSPaz jabetzeko eta prozesuaren parte sentitzeko, herritar-baseritar arteko distantzia sinbolikoak zein fisikoak handiak izaten jarraitzen dute, eta gizarteari Agroekologiaz trebatzeko informazioa falta zaio. Horrez gain, BSPa etxaldeen hartzen dituzten konpromisoetan oinarritzen den arren, prozesuak bere ibilbidea egin ostean, zaila izan da laborarien harreman sarea bizirik mantentzen, eta sistema bera indarrez mantentzen.

Identifikatzailearen erabileren inguruan ere hausnarketa bat egiteko beharra dago. 2018ko azaroan egindako ez-ohiko batzarrean behin eta berriro aipatu zen identifikatzailearen irudiaren erabilpena. Etorkizuneko identifikazio joerak zein dira? Zein dira herritar eta laborarien beharrak? Marka moduan erabili nahi da?

Galdera horiek guztiak etxalde sarearekin aztertuko dira identifikatzailearen geroaren funtsa marraztu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik iruditzen zaigu nahitaezkoa EHKO Agroekologiaren identifikatzaile herrikoiairen prozesu guztia berrikusi eta berrantolatzea. Aurretik dugun lana ez da makala. Konpromiso Agiria aldatu, laborariekin batera hori bete eta informazio eguneratua lotu; etorkizunera begira jarriko gaituen ikerketa egin; eta hori dena jendarteari eskuragarri jarri, pixkanaka herritarrak eta bestelako eragileak ere identifikatzailearen garapenean txertatzen joaten daitezen.

Norabide horretan planteatzen dugu kolektiboaren BSPa irekitze fase batean murgiltzea 2020 urtean. EHKOLEktiboaren etxalde sareak duen balio erantsia jendarteak aitortzeak, tokiko ekonomian eragingo duen inpaktua zuzena du, harreman sozial horiek ekonomiko bilakatuko direlako. Ez bakarrik EHKOLEktiboaren konpromisoak hartu dituzten baserritarrek merkaturatze bide laburren bitartezko salmentetan goranzko joera izango dutelako, baizik eta belaunaldi berriei ere, sektorean instalatzeko inizatiba suspertuko zaielako. Sektorean enplegua sortzeaz gain, belaunaldien arteko erreleboa ziurtatzeko aukerak zabalduko ditu.



6.6 ELKARLAN SAREA

EHKOlektiboko etxaldeak Euskal Herriko hiru administrazioen menpeko lurraldeetan aurkitu daitezke eta ondorioz leku bakoitzean errealitate ezberdinak ikus ditzakegu. Administrazio bakoitzean dituzten betebeharrak eta zailtasunak ezagutzea harrigarria da zenbaitetan, batez ere araudiaren interpretazioari dagokionez (nabarmenak dira etxaldeetan eraldatzen diren produktuen araudia eta komertzializazio desberdintasunak Iparralde eta Hegoaldean). **Muga administratibo hauetatik haratuago elkartasunean jarduteko sortu zen EHKOlektiboa.** Euskal Herriko eragile desberdinekin elkarlanean lan egiten dugunez, lurraldez lurralde proposamen berritzaile interesgarriak trukatzeko erronka dugu...

EHKOlektiboaren parte dira Euskal Herriko nekazaritza ekologikoaren elkarteak (BLEBIOLUR- BIONEKAZARITZA-LURREKO- ENEEKCPAEN/ NNPEK); elkarte hauekin lan koordinazioa behar beharrezkoa da, Agroekologiaren lanketa tokiko oinarriekin osatzen egiten delako. **EHKOlektiboak, elkarte hauei, Euskal Herri mailako ikuspegia eta sarea ahalbidetzen die.**

ELKARLAN SAREA:



Elkarte hauetatik haratuago Euskal Herriko herri mugimenduarekin saretua dago EHKOlektiboa eta maiz agertzen dira proiektu eta elkarlanerako ideia berriak. Azken urteetan elkarlana sustatu da eraile askorekin: EHU, (EAE), Arrapitz Federazioa (Iparralde), Gaindegia (EH), Emaus Fundazioa (EAE), BIZILUR (Bizkaia), ZUZEU.eus orainkaria, ARGIA aldizkaria (EH), Olatukoop (EH), Errigora,...

EHKOlektiboa harremanetan dago Euskal Herriko Gobernuarekin. Politika publikoak bideratzen dituzten arduradunekin harreman zuzena izatea garrantzitsua da EHKOrentzat. Izan ere, EHKO herritar guztientzat eskuragarri izango den bertako ekoizpen ekologiko eta soziala bideratu nahi du eta horretarako ezinbestekoa da sektorea arautzen duten eragileekin hitz egitea. **Agroekologiak ekarri ahal izango du etorkizuneko landa eremu osasuntsu eta bideragarri bat, eta honetarako laborarien ahotsa eta lana kontuan hartzea beharrezkoa da.** Bide honetan aurrerapausoak emateko, bilerak egin izan dira EAEko probintzietako Foru Aldundiekin, Euskal Hirigune Elkargoarekin, Nafarroako Gobernu eta Eusko Jaurlaritzarekin.

6.7 IKERKETAK ETA ELKARLANAK

◦ Berme Sistema Parte-hartzaileen proiektuen saretzea

EHKOk beste Berme Sistema Parte-Hartzaileak ere barne biltzen dituzten plataformetan bere lekua aurkitu du, eta eguneroko errealitateetatik aldendu gabe, esperientzia praktikotik jasotako zenbait irakaspen partekatu eta beste inizatiba erreferenteetatik ikasteko aukerak baliatu ditu. Aipatzekoa da, Estatu Espainiar mailan azken urteetan ospatutako lau topaketetan parte hartu izana, hasi 2015an Balentzian izandako topaketetatik eta aurren (2019an) berriz Granadan.

Kordoba Unibertsitatea BSP proiektuen sistematizatzeko saiakera bat egiten ari da Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioko babesarekin. Proiektuaren izena SPG: SISTEMAS DE CONFIANZA, PRODUCCIÓN ECOLÓGICA Y GARANTÍA da, eta helburua gaur egun martxan dauden proiektuen ikerketa bat egitea da etorkizunera begira esperientzia hauek indartzeko. EHKOLEktiboa proiektuko ikerketa kasua da eta modu aktiboan parte hartzen dugu proiektuaren jarraipenean.

Paraleloan Estatu Frantsesean antzeko mugimenduak eman dira, bertan BSP esperientziak lurraldean errotuagoak daudelako eta hainbat kasutan erreferentzia handia bilakatu direlako, Nature & Progressen adibidez. 2019an CIRAD ikerketa zentroak Frantziako esperientzien saretze bat bultzatu du eta 2020tik 2022ra garatuko den ikerketa proiektu bat sortu du, espainiarraren antzera. EHKOLEktiboak bi lurraldeetako proiektuetan parte hartuko du.

Horrez gain, EHKOk 2020 urteko topaketak antolatzeke konpromisoa hartu du, sarearen heldutasun eta egonkortasun maila adierazten dituen ardura. Erronka handia izango da gure nortasunari eutsi eta Espainiako eta Frantziako esperientziak gonbidatu nahi ditugulako.



Irudietan., Madrilgo 2018ko topaketak.

◦ **Kordobako Agroekologiaren Kongresu Internazionalen tailer bat antolatu dugu**

2018ko maiatzaren 30,31 eta ekainaren 1ean egin zen Kordoban Agroekologiaren Inguruko XII Nazioarteko Kongresua. Kordobako Unibertsitateak EHKOlektiboa gonbidatu zuen Berme Sistema Parte-hartzaileen inguruko tailer bat dinamizatza (BSP) mundu mailako beste lau egitasmorekin batera Eskolaurre (Balentzia), El Encinar (Granada), Red de Tiangis Mexicana (Mexiko) eta Ecotambo (Bolibia)). BSPen nortasuna eta lan moldea plazaratu genuen kongresuko parte-hartzaile guztiekin eta horretarako bi dinamika prestatu genituen konfiantza eta eraginaren inguruan.



◦ **CPAEN-NNPEK (Nafarroako Ekoizpen Ekologikoko Kontseilua) Agroekologiaren sentsibilizazioa teknikariek.**

Nafarroako Nekazaritza Ekologikoa arautu eta kudeatzen duen kontseiluarekin urteko proiektu garrantzitsu bat egin da Agroekologiaren eredia lurraldean zabaltzeko. Horretarako lan estua proposatu da ekoizpen ekologikoa ziurtatzen duten teknikariek, lehen pertsonan ezagutu zezaten ekoizpen ekologikoaren baitan laborariak sortu dituzten bizi proiektuak. 3 saio interesgarri egin dira elkarlanean eta horietako batean Iparraldeko 2 etxalde eta eraldaketa gunek bat bisitatu dira.



ZIURTAPEN EKOLOGIKOAN LAN SAIO TEKNIKOA Iparraldean: CPAEN (Naf) + ENEEK (Euskadi) + ECOcert + BLE (Ipar EH)

◦ **TRIGOPANECO proiektuan parte hartu da Estatu Espainiarreko beste 5 erakunderekin bateratu**

NEIKER eta Espainiar Estatuko beste hainbat kidek bat eginik (ITACyL, IRTA, INTIA, Molinos del Duero, AN Coop., CAYSA), hainbat autonomia erkideren arteko berrikuntza taldea osatu dugu (SUPRAGO). Proiektu parte-hartzaile eta berritzaile honen helburua da **ogia egiteko kalitate oneko gari ekologikoaren ekoizpena** bideratzea. Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Landa Garapenaren 2014-2020 Planaren barnean aurkeztu da proiektu hau. Lehen fasea 2018ko uztaletik aurrera gauzatu zen eta orduan eragile guztiak elkartu eta proiektua prestatzeko aukera izan zen, elkartruke eta bakoitzaren beharren analisia egin zen.

2018an proiektua egituratzeko lau bilera egin ziren. Lehengoa Gaztelan (ITACyL), bigarrena

Lleidan (IRTA), hirugarrena Nafarroan (INTIA) eta laugarrena Euskadin (NEIKER). EHKOlektiboak bilera hauetan parte hartu du, ikerketak begirada agroekologikoa ekarri. 2019ko azaroan Espainiako Ministeritzak ez du erantzun oraindik proiektuak jarraipena izango duen hala ez.

◦ **MENDIKO ARTZAINZAREN IRAUNKORTASUNA IKERKETAN (EHU) oinarri izango dira EHKO artzain-etxaldeak**

EHU, NEIKER eta BC3 ikerketa lan taldeak osatzen duten proiektua da hau. Ikerketaren helburua izan da aztertzea, azken 10 urteotan, mendietan abereen larratzearen uzteak larrearen dibertsitate, kalitate eta ekoizpen dinamikan nola eragin duen, eta orain garatu dituzten tresnak gizarteratzeko pausoa eman nahi dute. Helburu komertzialik gabe ikuspegi akademiko zientifikotik Agroekologiaren ereduan lan egiten duten artzainen ustategien inguruko analisiak eta balorazioak egin dira, ereduaren inguruko datuak hartzeko helburuarekin. Ikerketa Aralarreko Parke Naturalaren baitan kokatzen den Enirio-Aralar Mankomunitatean gauzatu da orain arte, Euskal Autonomia Erkidegoko Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Euskal Herriko Unibertsitateak Agroekologiaren ereduan lan egiten duten ardi-ustategiak aztertu nahi ditu ikerketaren hurrengo fasean (artalde gaztagileak eta esne-ekoizleak, baita haragi-ekoizleak ere). Euskal Herri osoko esperientziak bildu nahi dituzte, sailkapenkarakterizazio orokor bat egin eta, ondoren, elkarriketa bidez informazioa jaso. Elkarriketa horiekin EHKOko etxaldeetan ardien elikadura aztertuko dute: zer eta nola jaten duten, nolakoak diren larreak, nondik ekartzen den alea, zein kostu duen horrek; hurrengo urrats batean garatu nahi dituzten tresnak ahalik eta eraginkorrenak izateko helburuarekin.

EHKOlektiboak aktiboki lagundu nahi du ikerketa hau bultzatzen. Horretarako, dinamizazio eta artzain lan-taldearen antolakuntzatik ahalik eta informazio gehien erraztuko zaio EHUri.

EHKOlektiboak dituen giza-baliabideak eskainiko dira zerrendak ahalbideratu eta artzainekiko harremanak errazteko. Unibertsitatearekiko elkarlana 2018ko udazkenean egin da da.

◦ **UNISECO Agro-ecological Knowledge Hub (Jakintza agroekologikorako taldea.)**

Europa mailako ikerkuntza proiektu bat da UNISECO. Unibertsitate, ikerketa zentro, ingurumen eta nekazaritza erakunde ugarik egiten dute bat proiektu honetan (<https://unisecoproject.eu/partners>). Espainiar estatuko kide bezala GAN-NIK erakundea dago, Nafarroako Gobernu ingurumen enpresa publikoa da.

UNISECOko partaide bakoitzak, eredu agroekologikoan lan egiten duen, proiektu, kolektibo

eta nekazaritza elkarte batekin elkarlana egin behar du, eta GAN-NIKek EHKOlektiboa aukeratu du kasu konkretu bezala (Champion Stakeholder). Izan ere UNISECO proiektuaren helburua, Europar Batasuneko nekazar sistemetan, eredu agroekologikoaren garapena sustatu edo zailtzen duten faktore sozio-ekonomikoak eta politikoak ulertzen lagunduko duten ikuspegi berritzaileak garatzea da.

Bi urte iraungo dituen proiektu honetan, EHKOlektiboak proiektuaren fase guztietan parte hartuko du. Lehen fasean, EHKOk zereal ekoizle etxaldeak ikertu dituzte, adierazle sozioekonomikoak neurtu eta aztertzeko. 2019ko udaberrian beste proiektuekin batera Helsinkira bidaiatu zuen EHKOk proiektua sakonago ezagutu eta esperientzien arteko trukaketak egiteko. Topaketa hauetan baserritarren partehartze errealearen gogoeta jarri genuen mahai gainean.

2019ko abenduan Nafarroako hainbat erakunde eta eragile arteko topaketa bat egin nahi da eta EHKOlektibotik egun honen antolaketa bideratzen lagunduko dugu. Proiektu honek jarraipena izango du 2020 urtean.



Irudia: UNISECOren weborriko EHKOren storytelling-a

6.8 KOMUNIKAZIOA

EHKOlektiboaren jardura nagusietako bat Agroekologiaren inguruko pedagogia eta difusioa egitea da, hots, promozioa komunikazioaren bitartez. Agroekologiak nekazaritza eredu ekologikoa du oinarrian, eta honi beste irizpide ekonomiko sozialak gehitzen dizkio. Horregatik Agroekologiaren komunikazioa egiten dugunean ekoizpen ekologikoa babesten dugu oinarritik, kalitate araubide hau aldarrikatuz.

Komunikaziorako espazio berritzaileen beharrak ekimen kulturaletara salto egitera eramán

gintuen BASERRIKO UZTA eta BIZIAREN AHOTSAK ekimenarekin adibidez. Baina horietaz gain, espazio askotan presente egoteko indarra jartzen dugu, hala nola nekazaritza sektoreak proposatzen dituen azoka, merkatu eta ekitaldietan, zein herri muginduk proposatzen dituenak.

Komunikazioaren atalak bere estrategia propioa du. Lan hauek hobekiago egiteko 2018. Urtean Komunikazio Estrategia landu genuen ZUZEU orainkariarekin elkarlanean.

Jardura hauen hainbat adibide:

- **EHKOlektiboaren BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZIOA**
 - **Web orria eta sare sozialak**

EHKOlektiboa.eus web orria blog moduan sortu zen 2012an eta 2018an itxura berritze bat egin genuen, dinamikoagoa eta eskuragarria egin ahal izateko. 2019an edukien inguruko gogoeta egiten ari gara 2020ean webgune argiago bat erakutsi eta bisitariak EHKOlektiboa errazago ulertzeko helburuarekin. Kontziente gara webgunea milaka pertsonetara iristen de erakuslehioa dela, eta horregatik jakin behar dugu egiten duguna eta gure nortasuna adierazten. Gure jardura gehienak blogean sartzen saiatzen gara maiztasun handiz.

Sare sozialen erabileran asko dugu oraindik egiteko! EHKOlektiboa TWITEER plataforman bakarrik dago aktibo, izan ere balibaide mugatuak ditugu komunikaziorako eta herramienta honek komunikazio azkar eta ximple batekin ohiartzun nahikoa ematen ditugu.

Etorkizunean beste sare sozialetan aktibitatea izateko baliabideak edukitzea espero dugu.

- **Berri Papera + Buletina**

Barne mailan komunikatzeko, hau da gure kide eta lagunei egiten ditugun jardueren berri emateko, modu ezberdinak ditugu. Azkarrenak WhatsApp bidezko difusioa da. Berriki hasi gara horrela komunikatzen eta kideen erantzun azkarrak bide ona izaten ari dela adierazten digu. Ekimen konkretuen difusioa egiteko eta bideoak eta berri azkarrak bidaltzeko erabiltzen dugu.

Sakontasun gehiagorekin informatzeko Berri-Paperak ditugu, mailing edo buletin elektronikoa ere deitua. Gutxi-gora-behera hiru-hilabeteko maiztasuna du, eta hiru hizkuntzetan izaten da. Egindako jardueren kronika edo laburpenak egiten ditugu, ekimen berrien komunikazioa eta tartetxo bat uzten dugu etxaldeak eta herritarren proiektuen berri emateko. 650 emailetara iristen da buletin hau.

Urtearen amaieran EHKOlektiboko bazkide guztiei etxera iritsi zaie urteko jarduerak laburbiltzen dituen buletina. Batzar Orokarraren deialdia egiteko ere aprobetxatzen da.



• AZOKAK

2019an EHKOlektiboak Iparraldeko azoketan jarri du indarra eta ASUNAK biotopaketetan IDOKI (Etxe-ekoizleen elkarteak) merkatuan eta LURRAMAN parte hartu dugu bereziki. Azken urteetan, EHKOk hainbat modu aurkitu ditu parte-hartze aktiboa bultzatzeko espazio hauetan, EHKO ekoizleentzat gune berezituak jartzen Bionekaraban zein talo postuak jartzen adibidez BIOTERRA, REASen azokan, etab. Herritarrek in harremanak sustatzeko modu berriak bilatzen saiatzen gara.



Irudiak: Ezkerretan EHKOlektiboko etxaldea identifikazio ohlarekin. Eskubian BIOTERRA azokan izan genuen talo-postua



EHKOlektiboaren kanpo komunikazioa indartzeko hedabideekin aliantzak izatea garrantzitsua iruditzen zaigu. Egindako bideari esker gaur egun harremanak zuzenak ditugu honako hedabide edota informazio kanalekin:

- **Landaberri:** EITBko Irratsaioa. Landa gunee eta nekazaritza sektoreko berriak ematen dituzte. EHKOlektiboko jardueren berri ematen dute eta elkarriketa ugari egin izan ditugu.
- **Faktoria:** EITBko goiz-programa nagusia. Aurkezlearekin harreman zuzena dugu, eta Baserriko Uzta eta ekimen berrien inguruan hitz egiteko aukera eman izan ditugute.
- **ARGIA aldizkaria:** 2019 hasieran erreportai nagusia argitaratu zuten EHKOekin elkarlanean. Bizi-Baratzea atalean maiz aurki daitezke EHKOlektiboarekin kolaborazioak.
- **EKOLURRA aldizkaria:** Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEEK) argitaratzen duen aldizkaria da. Euskal Herriko ekoizpen ekologikoaren elkarte eta mugimenduen erakusleia izanik, EHKOlektiboak bere sorreratik parte hartze aktiboa izan du azken aldiro-aldiro EHKOren jardunaren berri emanez. Ekolurra aldizkaria digitalean zein paperean argitaratzen da, 2500 ale fisikoko tiradarekin.



7.ITXIERA

Garrantzi handia du ulertzea Agroekologiak bere baitan, ekoizpen eredu ekologikoaz gain, alde soziala, ekonomikoa eta kulturala biltzen dituela. Izan ere, Agroekologiak dakartzan balio erantsi horiek jendarte zabalak ezagutzen eta barneratzen dituen heinean, eragin positiboa biderkatuko da gure komunitatean, hainbat arlotan. Ingurumenaren iraunkortasunari dagokionez, kasu, bide horretan sakontzeko irizpide interesgarriak aintzat hartzen baitira eredu agroekologikoan – bertako hazi eta arrazen erabilera...-. Arlo sozio-ekonomikoari begiratuko bagenio, **gertutasunaren ardatzak tokiko garapen ekonomikoa sozialagoa sustatzen du, eta horren ondorioz **jendarte kohesionatuagoa** lortzeko bidean jartzen gaitu; eta, datorkigun **klima-aldaketa aurrean, tokiko elkartasun sareak** behar-beharrezkoak izango dira. **Osasungintzari** erreparatuz gero, eredu agroekologikoaren **onurak esanguratsuak** dira.**

Nahiz eta Agroekologiak oso filosofia mamitsua eta zabala eskaintzen duen, EHKOlektiboak **adibide praktikoa** izan nahi du, mugimenduarekin bat egiten duten etxaldeak balore guzti horien erakusleho bilakatuz. **EHKOlektiboa erreferente izanik, euskal jendarteak gure lurraldean Agroekologia non aurkitu dezakeen jakingo du.**

Agroekologiaren bidea erronkaz beterik dago, eta **datozen urteetarako lan handia du EHKOlektiboak**. Alde batetik, barne mailan indartzen eta estrukturtzeko beharra dugu. Bestaldetik, jendartearekiko dugun konpromisoa plazaratzen jarrituko dugu.

2020 urtea interesgarria izango da EHKOlektiboarentzat. **Kolektiboa eraberritu eta antolaketa** aldatuko dugu, **elkartea eta kideen bizi-iraunkortasunaren** bidean formula berriak aurkitu ahal izateko. Modu berean, **EHKO identifikatzailearen inguruko hausnarketa sakon** bati ekingo diogu: etxalde eta eragileei elkarriketak, lurraldez lurraldeko parte-hartze saioak eta lan-talde dinamikak bideratuko ditugu orientazio berrirako gako nagusiak identifikatu eta sistematizatzeko helburuarekin. Hori prozesu bezala irudikatzen dugu eta helburua izango da EHKO Agroekologiaren identifikatzaile sendoago bat izatea 2021ean.

BASERRIKO UZTA eta BIZIAREN AHOTSAK izeneko **ekimen kulturei jarraipena emango zaie**. Dagoeneko hasi gara lurraldeko eragile berriekin elkarriketak izaten, eta elkarlan berriak izateko bidean gara (ERRIGORA-AGERRALDIarekin, adibidez).

EROSKETA EREDU AGROEKOLOGIKOAREN inguruko **ikerketako emaitzak aurkeztu eta garatzen jarraituko dugu** kontsumo talde eta elkarteekin. Horien eskaria izan da EHKOlektiboa izatea kontsumo agroekologikoa saretzen duen erreferentziazko eragilea, eta pixkanaka sare hori josten saiatuko gara. Zentzu horretan gure asmoa da ikerketaren bidetik jarraitu eta elikadura ekologikoaren komertzializazioa sakonago ezagutzea, aurrean dugun testuingurua hobeto ezagutzea funtsezkoa iruditzen zaigulako.

Bukatzeko, **urteko erronka handi bat izango da BSP edo SPG topaketak antolatzea Euskal Herrian**. Estatu espainarreko eta frantseseko esperientziak elkartu nahi ditugu, gure sareak elkar-ezagutu eta elikatu daitezen behar handia baitago. Aurreikusten dugu topaketa horietan 80-100 bat pertsona elkartuko direla; hortaz, hizkuntz, lan-molde eta

nortasun ugari egingo dute bat. Horrek erronka handia izango da EHKOlektiboarentzat, baina ziur gaude apostu hau babestuko duten eragile eta erakundeak bidelagun izango ditugula.

Elkarlan saria EHKOlektiboak jasotzea babes handia izango da, jendarteak iraunkortasunerako egin behar duen trantsizio horretan ekarpena egiten jarraitzeko; Agroekologiaren bidea da EHKOlektiboak duen tresna denon ongizatearen alde lan egiteko; lurra, pertsona eta bizidun guztien alde, egin ere. BIONEKAZARITZA elkarteko lagunek esaten duten bezala, bakarrik azkarrago joango gara, baina elkarrekin urrunago iritsiko gara.

**Bide luzea dugu
Agroekologia,
goazen
ELKARLAN.EAN!**



ERANSKINAK

- **8.1.- Kontzeptu gakoien definizioa**
 - **Agroekologia**

Altieriren (2009) hitzetan , Agroekologia “nekazaritza ikuspuntu ekologiko batetik aztertzen duen diziplina zinetifikoa da. Hortik haratago, Agroekologiak ikuspegi zabalagoa du, nekazaritza lotutako oztopoak modu holistiko batean ulertarazten dituen. Ekoizpenean aurkitzen ditugun gaur egungo arazoak dimentsio teknikoak abiatuta, bestelako dimentsio sozial, ekonomiko, politiko, kultural eta ekologikoetara eramaten ditu”.

Altierirekin batera Gliessman ere aitzindaria izan da Agroekologia kontzeptua erabili eta garatzerako orduan. Hala ere eurek ez dute inolaz ere Agroekologia asmatu, milaka urte dituen praktika kulturala baita, herri bakoitzaren errealitateari lotutako dibertsitate eta bariazio guztiak barnebiltzen dituen.

Gliessman, 1996an, Agroekologia, agroekosistema jasangarrien diseinu eta erabilerarako printzipio ekologien aplikazioarekin lotzen du. Ondoren, trantsizio agroekologikorako prozesuen analisisan, bere definizioari bestelako elementuak erantsi, eta elikadura sistema globalaren ikuspegian kokatzen du. Bere hitzetan, Agroekologia “zientzia, praktika eta mugimendu sozialaren arteko gurutzaketatik sortzen den diziplina da”.

- **Elikadura Burujabetza**

Elikadura Burujabetza La Vía Campesina mugimenduak 1996an aldarrikatutako terminoa da. Elikaduraren Munduko Gailurrean, 400 nekazari erakundeak honela definitu zuten Elikadura Burujabetza: herriek, komunitateek eta herrialdeek beren nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, elikadura eta lurralde politika propioak definitzeko eskubidea dute, nork bere ezaugarrien arabera, ekologikoki, sozialki, ekonomikoki, eta kulturalki jasangarriak diren praktikak erabiliz.

Elikagaiak ekoiztu eta eskuragarri izateko eskubidea jasotzen du, alegia, herritar guztiek dute elikagaiak ekoizteko beharrezkoak diren baliabideak izateko eskubidea eta elikagai osasungarri, nutritibo, seguru eta kulturalki egokiak izateko eskubidea. Eredu honek, elikagaiak ekoiztu, banatu eta kontsumitzen dituztenak elikadura-politiken ardatz bilakatzen ditu, merkatu eta enpresen eskakizunei muzin eginez. Elikadura Burujabetzak herriek eta komunitateek nagusitasuna dutela esan nahi du, merkataritza auzien gainetik, elikagai ekoizpena eta elikagaiak kontrolatzeko.

Elikadura Burujabetzak harreman sozial berriak eratzen ditu, zapalkuntzarik gabeko harremanak: askeak, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunik gabeak, ez eta herri, arraza, esparru sozial eta belaunaldi ezberdinen arteko ere.

Elikadura Burujabetzaren sei euskarriak (Nyéléni 2007):

- 1.- Herritarrentzako diren elikagaietan zentratzen da.
- 2.- Elikagai ekoizle eta eraldatzaileak baloratzen ditu.
- 3.- Elikadura sistemak lokalizatzen ditu.
- 4.- Elikaduraren gaineko kontrola lokalizatzen du.
- 5.- Ezagutza eta gaitasunak eratzen ditu.
- 6.- Ama-lurrarekin lan egiten du.

◦ **Berme Sistema Parte-hartzailea**

IFOAM (International Federation of Organic Agriculture Movements), nazioarteko eragile ekologiko desberdinak elkartzen dituen erakundearen arabera, "Berme Sistema Parte-Hartzaileak eremu lokalean kalitatearen bermea ziurtatzen duten sareak dira. Elikagai konkretuak ziurtatu ordez, parte hartze aktiboa duten ekoizleek bermatzen dituzte euren ekoizpen proiektuak. Berz, inplikaturako eragileen lankidetzak aktiboan oinarritzen dira eta, konfiantza partekatuz, sare sozialen babesean eta jakintzaren elkartrukearen bitartez eraikitzen dira".

Mundu zabalean zehar barreiatuak dauden esperientzia anitzek euren egiteko moduak Hartzaileei dagokionez. Frantziako *Nature eta Progrès-entzat* "Berme Sistema Parte-Hartzaileek, eta erabiltzen dituzten tresna pedagogikoei, bermea dinamika sozialen erdigunean kokatzen dute. Ziurtagirietatik haratago, praktiken hobekuntza jarraitua ahalbidetzen dute, eta norabide komun kolektibo bat partekatzeko balio dute.

"La Xarxeta" Kataluniako baserritar agroekoloikoen sarearentzat berriz, "Berme Sistema Parte-Hartzailea gaur egungo zertifikazio ekologiko ofizialaren alternatiba da. Ekoizpen eta kontsumo prozesuan inplikaturako eragileek sortutakoa izanik, ezinbestean kolektiboa, parte hartzailea eta lokala. Sarea osatzen duten partaideek, adostutako printzipio eta teknika zehatz batzuk jarraitzen dituztela bermatzen duen metodologia".

Berme Sistema Parte-Hartzaile guztiek ideologia bera partekatzen dute, Agroekologia euskarri hartuta, elikadura burujabetzaren aldeko prozesuak dira, kooperazioan oinarrituak, ikuspuntu deszentralizatu batetik, tokiko tresna praktiko eta politiko gisa ulertzen dira.

ERANSKINAK

• 8.2.- BASERRIKO UZTA: saio guztien bilduma


I. uztaldia, 2017-2018

2017an proiektuaren lehenengo saioa ospatu zen azaroaren 4ean Antzuolan, Pikunieta baserrian, eta ordutik ekimen honek jarraipen polita izan du:

- 2017 Lehena, udazkenekoa, **Anari**ren kargu doa azaroaren 4an, **Pikunieta baserrian (Antzuola, Gipuzkoa)**. [Hemen kronika:](#) zuzeu.eus/ **udazkeneko-uzta**
- 2018 Negukoa, **Arbegan** baserria, Etxarri Larraun, Beltxaren bikotea .
- 2018 Udaberrikoa maiatzaren 19ean **Rafa Rueda** darama **Urduñako Santa Clara baserrira (Bizkaia)**. [Hemen duzue kronika.](#)
- 2018 Udakoa, **Mikel Urdangarin** ekin uztailaren 28an, **Arbonako J. Zaldunbideren baserrian (Lapurdi)**. [Honatx kronika.](#)
- 2018 Udazkenekoa, **Fermin Balentzia eta Jesus Ayesa** , azaroaren 3an, Oibarreko Mendiko Upategian. [Hauxe kronika.](#)


II. uztaldia, 2019

- Uztaldiaren prentsaurrekoa BioAlai kontsumo elkartearen Gasteizen. [Argia-ko berria.](#)
- 2019 Udaberrikoa ekainaren 15ean **Olatz Salvadorren** emanaldian **Anuzitako Beltzitina etxaldean (Araba)** . [Hemen duzue kronika.](#)
- 2019 Udakoa, **Eñaut Elorreitarekin** abuztuaren 30ean Pagolako Safran Lilia etxaldean (Zuberoa). [Honatx kronika.](#)
- 2019 Udazkenekoa, **Ruper Ordorikaren** kontzertua, azaroaren 9ean **Eibarko Sosola Baserrian (Gipuzkoa)**-. [Hauxe kronika.](#)



ERANSKINAK

• 8.3.- EHKO ETXALDE MAPA



1. BEREKA ARABIA (0034) 675 713 727 kegalatarr@gmail.com 2. TIERRA PAPEL TIERRA SALCEDO (0034) 616 018 279 www.tierrapapeltierra.com 3. BETISARASTEA AHIERRA 55 92 90879 as.dubalde@orange.fr 4. BIOTZKO LA BASTIDE CLAIRENCE 08 202 27034 alme.sylvain@orange.fr 5. BEHUKIZA BEGUNY VILLENAYE 05 590 93955 www.lafarmmedebizkaia.fr 6. EKBEGIA DONATEKI 05 59 37 81 87 ekbegia@gmail.com 7. ITURRI ETXEA BUNZUE-BUNUS 08 58 59 89 24	8. JAUBERRIA AHIERRA 338 380 39995 dunete.yml@orange.fr 9. KURUTZALDIA HELTIA zobeldiakamila@yahoo.fr 10. OIHANARTIA IBARLA 55 93 78210 www.ferme-bio-oihanartia.com 11. SCIC GARRO LEKORNE 06 70 18 26 40 www.biogarro.com 12. VERO ETJA C. LOPEZ LARZABALE 13. XEMIAENIA BEHAUZE 05 59 10 10 86 www.xemiaenia.com 14. ZAINEGI IBARLA 05 593 78794 zainegi@live.fr 15. ARISTIETA AJANZI (0034) 630 225 001 aristieta@aristieta.com 16. ASTERRIABIO AREATZA (0034) 620 990 142 asterrabiobio@hotmail.es 17. BIEZKO ATXONDO (0034) 652 707 140 biezko@gmail.com 18. BIZKAIGANE EBRIGORTI (0034) 946 256 215 bizkaigane@hotmail.com 19. TOLOGORRI URDURA (0034) 660 491 001 info@biologorri.com 20. ORTUTIK AHORA BUSTURIA ortutikahora@gmail.com 21. PATXIKOBASO HURRITA 22. AZADLEAGA SORIAUZE (0034) 606 583 320 azadaleaga@gmail.com 23. AZKONITA AMIZETA (0034) 618 254 971 azkonita2@gmail.com 24. BLASENEA ZARAUZ (0034) 680 533 204 www.blasenea.com 25. EKOALBORAZ HUTIMU-ELDONAR (0034) 688 613 150 www.ekoalboraz.com 26. ETXEBERRI GOIKOA OLASERENA (0034) 620 785 852 arbu2077@gmail.com 27. HARISTIZABAL ITASO (0034) 943 161 945 arrezabal@gmail.com 28. IRURE TXIKI ENRIEZA (0034) 675 711 907 irurebasenria@gmail.com 29. LOIDI BERGARA (0034) 672 214 887 agurtzane.diaz@gmail.com 30. MANDUBI ZAHAR ITASO (0034) 686 982 006 garikoizalesta@gmail.com 31. MATTENEA HONDARRIBIA (0034) 675 642 275 www.matteneabaserria.com 32. PIKUNIETA ANTZOLA (0034) 699 248 699 www.pikunietaasenerria.net 33. SAROE ANETA (0034) 618 900 667 www.behiako.com 34. SOSOLA EIBAR (0034) 639 040 438 gabizabaz@gmail.com 35. URTEAGA-URKULEGI ITASO (0034) 619 689 884 gorkasasietza@gmail.com 36. XALBARDIN HONDARRIBIA (0034) 620 327 701 xalbardinbaratza@gmail.com 37. ANTOINE & ELSA SUIPIE (0033) 953 314 406 antoine@lde.fr 38. CHRISTOPHE ELISSALDE ITASO (0034) 618 110 317 christophe.elissalde@orange.fr 39. HAZITIK LILIA SENPERE 05 59 54 95 04 www.hazitiklilia.eu 40. J. ZALDUNBIDE ARRONA (0033) 768 185 617 ekbergaz@yahoo.fr 41. MAIXOENIA HAZPARNE 05 92 95203 jean-baptiste.bacardatz@orange.fr 42. MAKOLAETA ELIZABARRI makolaeta@gmail.com www.makolaeta.com 43. XIRISTI MIRRIKTI BIRIATU biat@biriato.com 44. BODEGAS LEZAU LAKAR (0033) 460 429 351 www.lezaun.com 45. DOMINA GODEVITA (0034) 699 975 403 andituri_@hotmail.com 46. EGILLOR BORDA IRUROZKI (0034) 619 933 954 irurozki@arrakis.es 47. EKISSETUM MUKZI (0034) 699 002 489 jokandubarru@hotmail.com 48. ERLANDERE ANNEZA (0034) 626 795 023 erlandere@hotmail.com 49. YOLDI ARBIZU MENDIGORRIA yoldiarbizu@hotmail.com 50. GUNEKO TAFALLA (0034) 691 752 313 www.guneika.com 51. IBAR ARDIGAZIA UNANO (0034) 948 391 022 52. J. ARANDA FALCES (0034) 609 979 300 info@canecologicaranda.com 53. LAUREGIA ANIZ (0034) 675 550 960 www.jauregia.net 54. MENDIKO UPATEGI AIBAR/OIBAR (0034) 671 031 371 www.bodegamedika.com 55. R. GARCIA DE GALDEANO LOS ARCOS (0034) 607 551 339 56. UHARTE GAZTAK UHARTE-ARAKI (0034) 678 274 354 uharte_gazta@yahoo.es 57. BORDAIA PAGOLA 05 59 09 39 91 j-aguer@hotmail.fr 58. ESKANDA ARRORRAGA 55 628 00000 / 06221 beijo@lavis.be 59. MARTEUA ESKUELA 05 96 16097 mariteu.castillon@orange.fr 60. PEDRONIA LOHITZUNE 05 96 16029 www.orkantia.fr 61. SAFRAN LILIA PAGOLA sahfranlilia@laposte.net
--	---



MITEGIAK
Pépinière



BARAZIAK
Horticulture



SENDABELARRAK
Plantes médicinales



FRUITUAK
Fruit



ZEREALA-ETXESIBOAK
Céréales



LEKARIAK
Légumineuses



BEHI ENEKIAK
Lait de vache



AHUNTZ GAZTA
Fromage de chèvre



AROI GAZTA
Fromage de brebis



BEHI HARAGIA
Viande de bœuf



ARDI HARAGIA
Viande de mouton



TXERRIA
Cerd



OILASKOA
Poulet



ARRAUTZAK
Oufs



OGIA
Pain



EZTIA
Miel



ARDOA-SAGARDOA
Vin-vin



OLIBA OLIOA
Huile d'olive